



Hiru gune berri aurtengo Azokan, etorkizuneko erronken iragarle

Abenduaren 4tik 8ra bitartean euskal kulturgintza Durangoko 46. Liburu eta Disko Azokaren inguruan batuko da berriro

Iñaki Beobide Herri Gogoa diskoetxeak jasoko du Argizaiola omen-saria, abenduaren 4ko ekitaldian



Txelu Angoitia. Gerediaga

GUNE BERRIAK | 4

Irudienea, Kabi@ eta Szenatokia

Azoka beste kultur adierazpen batzuei zabalatzeko, zinemagintzari eskainiriko Irudienea, teknologia berrien Kabi@ eta antzerkigintza lantzeko Szenatokia guneak atondu dituzte.

AHOTSENEA | 30

Egunero 20 zuzeneko eta aurkezpen

Euskal musika eta literaturako urteko nobedadeak aurkeztuko dituzte euskal sortzaileek Ahotse-nea gunean. Azokaren bost egu-netan, 10:30etik 20:00etara, egita-rauak ez du etenik izango.

BERBARO | 12

Haur eta gazte, irakurtzen ikasiz

Berbaro euskara elkarteak 22. urtez Haur Literatur Aretoa antolatzen dihardu. Nobedadez eta berrikuntzaz beteta datozkigu irakurzaletasuna bultzatu guran.




**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA
BIZIA



kokapena

Nobedadez betetako hiru kale

STAND	KALEA	STAND	STAND	KALEA	STAND	STAND	KALEA	STAND
.EUS Euskara eta euskal kultura interneten	Artekale	97	ELKAR	Artekale	48-52	LABAYRU IKASTEGIA	Artekale	19-20
ABARKA	Artekale	46-47	ELKAR	Barrenkale	32-37	LEMURIA	Artekale	81
AEK-AIZUI	Artekale	60	ELKAR - ARGIAK	Barrenkale	38	LEONEN ORROAK	Barrenkale	30
AGORILA	Artekale	53	ENA	Artekale	98	LUKITOYS	Goienkale	98
AHOTSAK.COM	Artekale	22	EREIN	Goienkale	1-7	MAITZ	Artekale	57
AISE LIBURUAK	Goienkale	83-85	EROSKI	Artekale	5-6	MALUTA	Goienkale	11
AIZKORRI	Goienkale	110	EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA	Artekale	82	MAUKA	Barrenkale	28
AKTIBISTA-EL ACTMISTA	Barrenkale	19	EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA	Artekale	90	MEETOK	Goienkale	46
ALBERDANIA	Goienkale	77-82	EUSKAL HERRIA ALDIZKARIA	Goienkale	69-70	MENDEBALA JAIALDIA DISKAK	Barrenkale	14
ALTAFAYLLA-ARABERA	Goienkale	86	EUSKAL HERRIA SOZIALISTA	Artekale	68	MENDEBALDE-ADOREZ	Artekale	115
AMETSIK NAHI? GAUMIN	Goienkale	12	EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ	Artekale	59	METAK-ESAN OZENKI	Barrenkale	40
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Artekale	12	EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE			MEZULARI	Goienkale	99-101
ARANTZAZU	Artekale	95	ELKARTEA-LANKU	Goienkale	65-66	MINTZOLA FUNDAZIOA	Artekale	28
ARGIA	Goienkale	96-97	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	Artekale	34-35	MONDRAGON UNIBERTSITATEA	Artekale	33
ARTEAZ-PIMIENTOS	Artekale	54	EUSKALTZAINDIA	Artekale	116-117	MUNDUA	Goienkale	21-23
ARTEZ PAPERGINTZA	Artekale	65-66	EUSKO IKASKUNTZA	Artekale	31-32	MUSIKHERRIA	Barrenkale	12
ASKAPENA	Artekale	70	EUSKO JAURLARITZA	Artekale	13-16	NABARRALDE	Goienkale	40-41
ASTERO	Goienkale	59	EUSKO LEGEBILTZARRA	Artekale	112	OIHUKA	Barrenkale	39
ATARAMINE	Artekale	69	GAKOA	Artekale	64	PAMIELA	Goienkale	51-58
AZKUE FUNDAZIOA	Artekale	23-25	GARA	Goienkale	60-61	PIRRITX PORROTZ ETA MARI MOTOTS	Barrenkale	17
BADIHARDUGU	Artekale	21	GATUZAIN	Artekale	55	PRESOEN LAGUNAK	Artekale	67
BAGA-BIGA	Barrenkale	4-6	GAZTE SORKUNTZA	Artekale	71-72	SABINO ARANA FUNDAZIOA	Artekale	113-114
BARTON FILMS	Artekale	79	GAZTEZULO.COM	Artekale	75	SILBOBERRI TXISTU ELKARTEA	Artekale	84
BBK FUNDAZIOA	Artekale	3-4	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Artekale	10-11	SORTZEN-IKASBATUAZ	Artekale	83
BERRIA-HITZA	Goienkale	63-64	GITE=IPES/AHAZTUAK/BILGUNE FEMINISTA	Artekale	62-63	SU TA GAR	Barrenkale	10
BERTSOLARI ALDIZKARIA	Artekale	107	GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.	Goienkale	24	SUA EDIZIOAK	Goienkale	71-73
BIDEHUTS	Barrenkale	25	GOR DISKAK	Barrenkale	20-22	SUSA-LITERATURA	Goienkale	74-76
BIDEOGRAFIK	Artekale	100	GURE LIBURUAK	Goienkale	87	TAKA/LA CHIKUILLA	Barrenkale	29
BILBOKO UDALA	Artekale	110	HABE	Artekale	29-30	THE BALDE-ENTZUN!	Artekale	74
BITARTE	Goienkale	45	HALA-DZIPO	Barrenkale	23	TMEO	Artekale	73
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Artekale	7-9	HAMAIIKA TELEBISTA	Artekale	99	TRAVEL BUG	Goienkale	47-49
BIZKAIKO MUSEOAK	Artekale	111	HIK HASI	Artekale	94	TRIKITIXA ELKARTEAK	Artekale	91
BONBERENEA EKINTZAK	Barrenkale	11	HIRI RECORDS	Barrenkale	26	TARTALO	Goienkale	13-20
BRIXTON RECORDS	Barrenkale	24	HIRU ARGITALETXEA	Goienkale	42-43	TXALAPARTA	Goienkale	88-95
DEIA-NOTICIAS TALDEA	Goienkale	62	IBAIZABAL	Goienkale	102-109	TXAPELGAMES	Artekale	26-27
DENON ARTEAN	Goienkale	44	IDATZ ARGITALDARIA	Artekale	96	TXERTOIA	Artekale	40-42
DESCLEE	Goienkale	8-9	IGELA	Goienkale	38-39	TXISTULARI ELKARTEA	Artekale	92
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA	Artekale	38-39	IKAS ZENTROA	Artekale	56	UEU	Artekale	36
DURANGALDEKO ARGITALEPENAK	Artekale	1	IKASELKAR	Goienkale	111-118	UNIVERSITY OF NEVADA PRESS	Artekale	18
DURANGOKO UDALA	Artekale	2	INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA	Artekale	89	URTIXINTXA ESKOLA-BIZKAIA	Goienkale	10
EGUZKI BIDEOAK	Artekale	76-77	IRRIEN LAGUNAK	Barrenkale	18	UTRIUSQUE VASCONIAE	Goienkale	50
EHAE/COAVN COLEGIO DE ARQUITECTOS			JAKIN	Artekale	17	DDT DISKAK-GATAZKA GUNEA		
VASCO NAVARRO. DELEGACIÓN EN BIZKAIA	Artekale	37	J.K. IRIZAR	Barrenkale	3	BANIZU NIZUKE	Barrenkale	13
EHAZE	Artekale	93	KAP	Barrenkale	27	WWW.HOTSAK.COM	Barrenkale	7-9
EL MUNDO DE LOS PIRINEOS	Goienkale	67-68	KATXIPORRETA	Barrenkale	15-16	ZENBAT GARA ELKARTEA	Artekale	61
ELHUYAR	Barrenkale	101-103	KILIKLON.COM	Barrenkale	31	ZTK-EUSKALTZALEEN BILTZARRA	Artekale	58
ELKAR	Goienkale	25-37	KLASIKART	Barrenkale	1-2	ZUTOIA	Artekale	85-86
ELKAR	Barrenkale	41	KONTSEILU EBANJELIKOA	Artekale	80			
ELKAR	Artekale	104-106	KUTXA FUNDAZIOA	Artekale	108-109			
ELKAR	Artekale	43-45	LA GALLINA VASCA/EUSKALEMA	Artekale	78			



46
DURANGOKO
Euskal
Liburu
eta Disko
Azoka

aek-k
hitza ematen dizu
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

www.aek.org 902 36 22 94

aek

Gereño ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

2011ko egitaraua

ABENDUAK 4

12:00 *Inaugurazio ekitaldia. 'Galizia denok gara'* (Elkartegian). Anton Reixa musikari polifazetikoagaz.

13:30 *Reflejos de Flandes. La escultura mueble tardogótica en Bizkaia* (Museo Diocesano de Arte Sacro), Aretoan.

14:00 *Bertsolari* aldizkariaren 20. urteurrena. Bertso saioa balkoitik: Jon Maia eta Sebastian Lisazo, Azokan.

14:00 *XIX. mendeko euskal-burgesia-Pedro de Viteri Arana-filantropoa eta eskola-sortzailea* (Intxorta 1937), Aretoan.

14:30ean, *Gaitasun emozionalak eta eskola elkarbizitza; eskuarte eredu bat* (Robertso Salazar-Mundua. S.L).

15:00 *Euskal Herriko Musika Argazkilariak* (Pablo Salgado-Banizu Nizuke, eta, Jon Iraundegi argazkilaria), Aretoan.

15:30 *No busqué el exilio* (Begoña Gorritxo, Juan Ramon Garai-Intxorta 1937), Aretoan.

16:00 *Xibertako Aktak* (Mixel Mendiburu, Battitta Larzabal, Mirentxu Purroy- Anai Artea), Aretoan.

16:30 *La gesta traicionada. los anarquistas vascos y la Guerra Civil en Euskal Herria (julio 1936-junio 1937)* (Gatazka Gunea), Aretoan.

17:00 *Gerrako Garrak Oñatin* (Intxorta 1937), Aretoan.

18:00 *Euskadi Bihotzean. Oroitzapenak* (Jose Antonio Ardanza-Txertoa), Aretoan.

18:30 Galegora itzulita dauden euskarazko testuen irakurketa, Harkaitz Cano, Leire Bilbao eta Urtzi Urrutikoetxea, Aretoan.

20:30 Durangoko Argizaiola omen-saria Iñaki Beobideri, San Agustin Kultur Gunean

ABENDUAK 5

11:00 *#Filmesaldia* ipuin inprobisatua (Ander Lipus), Kabi@n.

19:00etan ere bai.

12:00 Mahai-ingurua: *Liburu elektronikoari buruzko gogoeta* (Gurebook), Kabi@n.

13:00 Berriketaldia: *Galegoz eta euskeraz, Galizia eta Euskal Herriaz...* (Hizlariak: Dario Xohan Cabana, Pako Aristi, Xose Estevez), Aretoan.

15:30 *Mugikor bidez euskara ikasten: Elhuyar hiztegiak eta euskara ikasteko aplikazioak* (Elhuyar), Kabi@n.

16:00 *Ulermen irakurketa azkarra* (Prakagorri), Kabi@n.

Gaztebizz zuzenean: Mikel Urdangarin eta Julian Iantzi (Bizkaiko Foru Aldundia), 16:30ean.

17:00 Kulturize, aurkezpen eta erakustaldi praktikoa (Akting), Kabi@n.

17:30ean, *Klikasi multimedia-gunea: Klik eginez ikasi!* (Azkue Fundazioa).

18:00 *Artezen balibideak sarean* (Artez Euskara Zerbitzua), Kabi@n.

18:30 *Wiki bat garai digitaleko literaturaz* (Imanol Epelde Pagola), Kabi@n.

19:00 Irakurketa dramatizatua: Maite Arroze eta Kepa Errasti (EHAZE), Azokan. AzokaTBtik eta Bizkaia Irratitik zuzenean.

20:30 Kontzertua: *Txistua XXI. mendean: Silboberri-Klem (Silboberri)*, San Agustin kulturgunean.

ABENDUAK 6

10:00 Irudienea, aurkezpen ofiziala.

10:30 Euskal wikipediaren edizio-maratoia: Auzolan festa euskal wikipediaren 10. urteurrenean, Kabi@n.

Hitzaldia: *Euskal wikipedia:10 urte jakintza librea zabaltzen* (Unai Fdz de Betoño). Aldi berean, hiru eguneko ikus-entzunezkoen aurrerapena, Irudienean.

11:15 / 16:15 Hitzaldia: *Itzulpen automatikoa eta Wikipedia elkarri laguntzen* (Kepa Sarasola, Gorka Labaka), Kabi@n.

11:45 / 16:45 Edizio maratoia I eta II: Tutorizatua. Ewikipedia eta itzulpen automatikoa, Kabi@n.

Euskal wikipedia: 10 urte jakintza librea zabaltzen hitzaldia (Galder Gonzalez), 15:30ean.

12:00 Ikus-entzunezkoak: *Zinema euskaraz programa* (Eusko Jaurilaritza), Irudienean.

19:00 Antzerki maratoia: Higa, Morritson eta Gartzia, Metrokoadrokoa eta Karrika, Szenatokian.

ABENDUAK 7

10:30 *Zohorraren Antologia, Patanjali Yoga Sutrak* eta *Talmudaren Antologia* (Ibaizabal), Aretoan.

11:00 *1512 Nafarroa Amets Urratua* (Ikas Elkar), Aretoan.

11:00 Musikaklipak, Irudienean.

11:30 *Lo que dije y digo* (MarianoFerrer-Ttarttalo), Aretoan.

12:00 /17:00 *Laburbira* Film Laburren VIII. Zirkuitoa, Irudienean. (Topagunea).

12:00 *Historia del Rock Vasco-Euskal Herriko musikaren entziklopedia* (Baga-Biga), Aretoan.

12:30 Solasaldia: *Galeusca* (A Asociacion de Escritores en Lingua Galega eta Euskal Idazleen Elkarteko kideak), Aretoan.

13:30 *Zeluloidezko begiradak* (Elkar), Irudienean.

14:45ean, *Bizitza osoa giltzapean* ikusentzunekoa (Eguzkibideoak).

15:00 *Kafe eta galletak* (Banizu Nizuke) proiektua, Aretoan.

15:30ean, Euskarazko katalogoa (Barton Films).

16:00 *La ruptura de Txiberta. Lo que no pudo ser*, eta, 16:30 *Gudaro* (Ahaztuak 1936-1937), Aretoan.

17:00 *Los años robados* (Carlos Chicón-Arabera), Aretoan.

17:30 *Auto ibilbideak.Goierriko gazteen automiobil kulturaz* (Maddi Garcia Olaskoaga-Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala), Aretoan.

18:00 *Animalien aferak* (EHU), Aretoan.

18:30 Solasaldia: Hizkuntza gutxituak eta antzerkigintza (EHAZE), Szenatokian.

18:30 *Txirri, Mirri eta Txiribiton* (Peter Ansorena eta Konpainia), Aretoan.

18:30 *Bertsolari* dokumentala (Asier Altuna), Irudienean.

20:00 *Gure bide galduak* (Dejabu Papin Laborategia), Szenatokian.

ABENDUAK 8

11:00 Musiklipak (Galegoz), Irudienean.

11:30 Azokaren balorazioa,Aretoan.

12:00 / 13:30 / 16:00 / 17:30 *Ametz eta su bola* ipuin interaktiboa, Szenatokian.

12:00 *Galiza laburrean I* ikusentzunekoa, Irudienean.

Galiza laburrean II, 18:30ean.

13:00 *Bagare, bagera, bagire, bagara...* Bittor Kapanagari omenaldia (Gerediaga), Aretoan.

13:30 *Digna rabia* dokumentala, Irudienean.

15:00 *Aktibista* (Donostia Films), eta, 15:30ean, Xora Filma: *Xiberoako euskara plazatik zinemara* (Baleuko).

15:30 Edipotoa-Pablo Salgado eta Nagore Legarreta (Banizu Nizuke), Aretoan.

16:00 Aurkezpena: Sinsalaudio, Aretoan.

16:30 *Euskarazko lehen dokumentalak* ikus-entzunekoa, Irudienean.

17:00 *Munduko nazioak eta Euskal Eredua* (Lemuria), Aretoan.

18:00 Durangaldea Bizi lehiaketako sari banaketa (Gerediaga), Aretoan.

20:30 *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentala (Bideografik), Szenatokian.

JAIONE AMANTEGI

ERAIKI IZATEKO



- Estilismo eta analisisa
- Bisajismoa
- Kolorearen aholkularitza eta ikerketa
- Neurriko makillajea
- Ekitaldiak eta protokoloa
- Personal shopper
- Gizonarentzat
- Flash efektua
- Zer oparitu
- Armairuaren ikerketa eta aholkularitza
- Ezkontzak

656 794 233
629 718 118
www.jaioneamantegi.com

Gabon hauetan originala izan zaitezke opari bonu batekin!

Durangori azoka usaina dario. Abenduaren 4tik 8ra bitartean euskal kulturaren erreferente izango dela jakitun, Gerediaga elkarteak hainbat nobedade prestatu ditu 46. Euskal Liburu eta Disko Azokarako.

Datuak

Nobedadeei dagokienez, aurten 434 izenburu argitaratu dituzte, iaz 505. Gehienak liburuak dira: 313; gainera, 63 disko, 23 aldizkari, 9 bideo, 15 liburu elektroniko eta 11 bestelako argitalpenak.

Azoka osatzen duten kaleetan 274 erakusmahai atonduko dituzte, iaz baino 9 gutxiago. 138 argitaletxeenak izango dira, 13 teknologikoak eta 14 berriak.

Gogoeta

Aurten euskarazko sorkuntzaren norabidean aurrera egitea du Azokak helburu. Nerea Mujikak Azokaren aurkezpenean azaldu zuenez, etorkizuneko Azokaren gogoeta burutzen jardun du Gerediagak azken hiletan. Abenduaren 8tik aurrera ere plan estrategikoa garatzen jarraituko dute. Gogoeta horretan "publikoa, erakundeak eta herria" aldamenen edukitzea itxaroten dutela adierazi du. Azoka hainbat kultur adierazpenetara zabaltzea izango da helburu nagusia.

Gerediaga elkarteak
Azokaren inguruko
gogoeta egiten diharduela
azaldu du Nerea Mujikak

Aurtengo Azokan hiru
gune berri egokituko
dituzte: Irudienea,
Szenatokia eta Kabi@

Kultur adierazpenei egokitutako gune berriak

Durango euskal kulturgintzaren hiria izango da abenduaren 4tik 8ra, Euskal Liburu eta Disko Azokagaz. Gerediagak Azokaren inguruko gogoeta egiten dihardu aurten



Txelu Angoitia. Gerediaga

Egitarau oparoa prestatu dute Azokak hartzen dituen guneetarako. Aurten hiru gune berri sortu dituzte: Irudienea, Szenatokia eta Kabi@.

Ahotsenea eta Berbaro euskara elkarteak antolatzen duen Haur Literatur Aretoa finkatutako guneak dira, dagoeneko, Azokaren egitarauan. Ahotsenean, euskaraz-

Landako Gunean egokituko
dituzten kaleetan 274
erakusmahai prestatuko
dituzte antolatzaileek

ko literatura eta musika sortzaileei eskainitako gunean, egunero 20 aurkezpen inguru egingo dituzte. Landako Gunearen alde batean kokatuko dute aurten ere karpa.

Haur Literatur Aretoak, berriz, 22 urte egingo ditu aurten. Seme-alabek eta gurasoek elkarregaz parte hartzeko aukera eskainiko dute aurten.

Irudienea

Topagunea euskara elkarten federazioak bultzatuta Irudienea gunea zabalduko dute. Euskal zinemagintza arloko sorkuntzak eskainiko dituzte, erakustazoka ondoan egokituko duten autobus batean, abenduaren 6tik 8ra.

Proiektatuko dituzten ikus-entzunezkoen aurre-irapena abenduaren 6an 10:30ean aurkeztuko dute. 12:00etan, herritarrei zinema euskaraz hurbiltzea helburu duen Eusko Jaurlaritzaren *Zinema euskaraz* programaren barruan, Azokan euskaraz argitaratutako filmak proiektatuko dituzte. Zortzi orduko emanaldia egingo dute, etenik barik.

Szenatokia

Antzerkigintza arloko euskal sorkuntzentzako gunea prestatu dute San Agustin kulturgunean, EHAZ-aren laguntzagaz, abenduaren 4tik 8ra antolatu duten egitarauan. Abenduaren 6an Higa, Morritson eta Gartzia, Metrokoadroka eta Karrikaren eskutik antzerki maratoia jarriko dute martxan 19:00etan.

Abenduaren 7an, berriz, hizkuntza gutxituak eta antzerkigintza izango dituzte berbagai, 18.30ean. Galegoz eta euskaraz ekoizten diren antzerki lanen eta antzerkizaletasunaren inguruan jardungo dute Arthur Trillok, Jokin Oregik eta Ramon Agirrek. Moderatzailea Ane Zabala izango da.

Kabi@

teknologia berriek euren lekua izango dute Azokan, Kabi@ gunean. Abenduaren 5ean eta 6an, euskaraz sarean eta euskarri teknologiko berrietan garatzen diren proiektu eta ekimenak izango dira gune honetara ekarriko dituztenak. UEU eta Euskal Wikipedia dira laguntzaileak.

Ander Lipus aktoreak Azokara datozen bisitarien laguntzagaz ipuin kontaketa interaktiboa eta inprobisatua egingo du. Abenduaren 5ean, 11:00etan eta 19:00etan. Abenduaren 6an, euskal wikipediaren edizio-maratoia antolatuko dute. Auzolan-festa izango da euskal wikipediaren 10. urteurrenean.



zure ziztada behar dugu

berriaguna izan nahi baduzu, bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berriaguna
- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzutekoeta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitetz

berriaguna



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa Arrasate

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati ABENDUAK 15 osteguna, 18:00 **Irun ABENDUAK 17** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea Donostia

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30



902 110 436

www.mondragon.edu/prest

“Urnietan egin genituen lehenengo grabaketak, Bartzelonako ekipoagaz”

Euskal kulturgintzaren arlo askotan lan egindakoa da Iñaki Beobide. Besteak beste, Herri Gogoa diskoetxearen sortzailea da, eta euskararen alde egindako lanarengatik 2011 Durangoko Argizaiola omen-saria emango diote abenduaren 4an

Zer premia zeuden sasoi hartan euskal kulturgintzan? 1950eko hamarkadan antzerki munduan eman nituen lehenengo pausoak. Beharra, duda gabe, euskara zen. Ni Zumaia-rra naiz, eta niretzako euskara eguneroko momentu guztietako hizkuntza zen. Donostiara etorri nintzen, eta oso gutxi egiten zen euskaraz kalean. Inguruko herrietako lagunekin batu eta antzerki irakurria eskaintzen hasi ginen. Euskaltzaindiaren Gipuzkoarako antzerki lehiaketata batera, Jarrai izenagaz, antzerki lan bategaz aurkeztu ginen, eta zazpi edo zortzi urte iraun zuen.

Saizarbitoriagaz ‘Zeruko Argia’-n jardun zenuen.

Ordurako espetxetik atera nintzen, eta ezkutuan agerian baino gehiago egin behar nuen lana. Joseba Agirre izenagaz sinatzen nuen. Antzerkiari buruz idazten nuen. Munduko Arregik ematen zuen, beraz politika gaietan bera ibiltzen zen. Eguneroko egoez Ramon Saizarbitoria zebilen, eta kantu munduan Arantxa Gurmendi. Beti Jarrairen izenean ibiltzen ginen garai horietan.

Herri Gogoa diskoetxea ere sortu zenuen...

Edozein lekutan kantu jaialdi bat antolatzen zenean, jendez gainezka egoten zen. Euskaraz egiten zelako, eta abestiek esaten zutenagatik izugarritzko burrunba aireratzen zelako. Martxan zeudenak, gero Ez Dok Amairu izango ziren kantariak ziren. 1961ean bizi

genuenok, ondo gogoan daukagu diskogintzatik begiratu-ta ere beste aldeko Goiztiri diskoetxea, Abeberry anaiak eta Ximun Aran tartean zirela. Jakina, beste aldean agertu behar ziren, eta beste aldeko zentsura adierazten zuten. Cinsa, berriz, Xabier Gereñok sortu zuen.

“Euskara bultzatzeko premia handia somatzen genuen sasoi hartan”

Diskogintza arloan zelako garapen gertatu da?

Orduan diskoak egitea oso gaitza zen. Diskoak grabatzeko Madrilera edo Bartzelonara joan behar zen, eta hango musikariak kontratatu. Giro falta somatzen zen, musikariak ez zirelako euskaldunak. Estudio-etako musikariak ziren. Herri Gogoa sortzeko arrazoia horixe izan zen. Ez Dok Amairuko askogaz lagunak ginen. 1966an, taldea sortu zenean, pausoak ematen hasi ginen diskoak Donostian grabatzeko. 1967an lehenengo grabaketak egin genituen, Urnietan, Bartzelonako ekipo batzuk eta teknikoak hona ekarrita. Hantxe grabatu ziren Xabier Lete, Juliantxo Lekuona, Benito, Lurdes, Oskarbi, Irigarai anaiak e.a. Grabaketa tirada bat egin

genuen. Ez ziguten baimenik eman disko horiek guztiak argitaratzeko; Edigsa izenagaz sinatzen genuen HG kolezio moduan.

Gipuzkoako Diputazioko Dantza, Antzerki eta Ahozko Literaturako arduradun izendatu zintuzten gero.

Kultur Sail bat bezala zuen dirulaguntzak-eta zuzentzeko, eta hor ere sartu nintzen aurrera begira zerbait egiteko. Batik bat dantzari taldeetan erraztasun handiagoa nuen gauzak egiteko. Euskal Dantzarien Biltzarra zegoen Bilbon. Haurrentzako sariketak eta jaialdiak antolatu genituen. Puntu berezi bat egon zen kultur talde honetatik Euskal Telebistaren beharra ikusten genuelako, euskal emisioaren beharra ikusten genuen.

Zer pauso eman zenuten ETBren sorreran?

Diputazioak kultur talde horri eskatu zion mugitzeko, ea zer egin zitekeen arlo horretan. Bost lagun joan ginen Italiara hango herriko telebistak ikustera, hemen zerbait egiteko. Gero Eusko Jaurlaritza sortu zen, eta Ramon Labayen zegoela pausoak ematen hasiak ziren, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela. Euskarazabaltzeko sortu zuten ETB. Gero, beste kanalak sortu zituzten, erdarazkoak.



Argizaiola 2011

Pozik zaude sariagaz?

Ezin dut ukatu baietz. Barrenean ibiltzea gehiago gustatzen zait kanpoan baino. Nigana etorri zen Gerediagako Jon Irazabal, eta orduan pentsatu nuen: “Ez da niretzat hori”. Jende asko bada hor; Xabier Gereño, esaterako: euskal diskogintzan pauso garrantzizkoak egin zituen. Baionako diskogintzan bere pausoak jarrai-

tu zituzten, eta gero etorri ginen gu. Xabierren omenaldia falta zela sumatzen nuen. Hala ere, Gerediagari ezin diot uko egin, eta saria onartu dut.

Azoka hasieratik ezagutzen duzu?

Lehenengoan ez, baina bigarenean egon nintzen. Han ginen eliza inguruan hotza pasatzen.

Gaur egun zer sentitzen duzu Azokara zatozenean?

Ikastolekin gertatzen zaidan gauza bera gertatzen zait Azokagaz. Ikastolak martxan jartzen ezagutu ditut, eta hor dabilzan gazteekin, horrek ez du erremediorik, horrek betirako dute euskara. Nire euskara kalean eta etxean ikasitakoa da, baina euskara ikasteko ez nuen ezelako biderik izan. Izugarritzko pausoak emanak dira, Euskal Liburu eta Diska Azokan ere bai.

AZOKA EGUNETAN ZABALIK!

EL MUNDO DEL JABON

Uribarri, 21 (zinema aurrean)
Tel.: 94 603 24 26
DURANGO

Maite Drogeria
Lurrindegia eta Bitrikeridenda

Barrenkalca, 22 · 48200 Durango
94 657 09 17 · 655 703 947

telepizza®

Askatasun etorbidea, 25
Tel.: 94 621 81 86

IKASTEKO TEKNIKAK

IKASTARO BERRIA
ABENDUAN
www.psikologo.biz

Jon Arruabarrena – Psikologoa
Francisco Ibarra, 6 (Durango)
94 603 32 46 - 629 245 728

kostaldea

Getaria
Tel.: 943 140 957

Orio
Tel.: 943 835 565

Zarautz
Tel.: 943 830 990

Aia
Tel.: 943 835 389

Zumaia
Tel.: 943 143 396



GETARIA: Marinel-herri honen alde zahar monumentalean, batez ere, Salbatore Deunaren eliza nabarmentzen da. Txakolina egiteko erabiltzen diren mahastiek inguratzen dute herria.

CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA

Cristobal Balenciaga Museoaren helburua Kristobal Balentziagaren lan onenen moda-erakusketa bihurtzea da, baita haren arrakastaren giltzak eta modaren historiari egun zion ekarpena azaltzea ere.

Abenduaren 3tik 11ra:

Ordutegia: Abenduak 3: 10:30-20:00 / Abenduak 4: 10:30-18:00

Abenduaren 5etik 10era: 10:30-20:00 / Abenduak 11: 10:30-18:00

Tailerrak: abenduaren 6an eta 8an: "Zetazko zapiak". Informazio gehiago: www.cristobalbalenciagamuseoa.com


ORIO: Marinel-herri hau inguru pribilegiatuan dago: itsasoaren, ibaiaren eta mendiaren artean. Aipatzekoak dira San Nikolas eliza, alde zaharra eta traineruen estropadak.

SAN NIKOLAS JAIK

Abenduaren 5etik 8ra:

Haur jokoak, dantza txapelketa, spinning maratona, herri bazkaria, 3x3, xake txapelketa, bertso emanaldia, kontzertuak eta oso giro ona.

Informazio gehiago: www.oriara.com



ZARAUTZ: Zarauzko herria hondartza luze baten parean dago. Eskaintza turistikoa aberatsa du, eta bertako eraikinak bere historiaren adierazle dira: Torre Luzea, Narros jauregia...

ERDI AROKO AZOKA

Abenduaren 3tik 8ra, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 22:30era.

Ekitaldi programa:

- Goizez, 11:30etik 20:30ak arte ordu erdiro: kalejirak, txontxongiloak, musika, kale animazioa, ...
- Arratsaldez, 18:00etatik 20:30ak arte ordu erdiro: kale animazioa, ipuin kontalariak, txontxongiloak, ...
- Gueuz, 22:00etan gau ikuskizuna egunero

Egunero, Haurren Txokoa, haurtzaindegia, zaldiko-maldiko eta asto karabana 11:00-14:00 eta 17:00-21:00

www.turismozarautz.com

AIA: Landa-giroko herri hau baserri eta basoz inguratuta dago. Bertan ikustekoak dira Pagoetako Natur Parkea, Interpretazioa Zentroa, Lorategi Botanikoa eta Agorregi burdinola.

PAGOETA PARKE NATURALA

Abenduaren 3tik 11ra:

- Iturraren Interpretazio zentruaren irekiera: 10:00etatik 14:00etara egunero, abenduak 5a izan ezik
- Lorategi botanikoa: 09:00etatik 19:00etara
- Agorregiko burdinola: bisita gidatuak jai egunetan (4,6,8 eta 11) 11:30ean

Informazio gehiago: www.aiapagoeta.com



ZUMAIA: Erdi Aroko trazatua duen herri hau Urola ibaiaren bokalean dago. Bi hondartza ditu, itsaslabar ikusgarriak, flysha, kirol-portua bai eta museo oso interesgarriak ere.

BISITA GIDATUAK

- Abenduaren 8a: "Irteera geologikoa eta txalupa". Irteera ordua: 10:00etan
- Abenduaren 10a: "Flysch-aren ibilbidea, ibilbide osoa". Irteera ordua: 09:45etan

On-line erreserbak: www.geoparkea.com



Kostaldea - Costa Vasca - Basque Coast - Côte Basque



www.costavasca.org

“Sormenerako gaitasun handia egon da beti Galizian; merkaturatzeko ditugu arazoak”

Anton Reixa sortzaileak Galiziako musika, poesia, telebista eta zinea ondo ezagutzen ditu. Inaugurazio ekitaldian kultura gutxituen antzekotasunak eta Galizia eta Euskal Herriaren arteko hartu-emanak izango ditu ahotan.

Azokaren inaugurazioko berbaldiari ‘Galizia denok gara’ deitu diozu. Zertaz jardungo duzu bertan?

Izenburua ipintzerakoan Negu Gorriak-entzako konposatutako *Denok gara* Malcom X-ekin gogoratu nintzen. Adierazi gura nuen, estaturik izan ez arren herri txiki garenon artean badaude la unibertsaltasun gako batzuk, kultura industrian bereziki osasuntsuak direnak. Berbaldian horren gainean berba egingo dut, batez ere, Galizia eta Euskal Herriaren arteko hartu-eman kulturaletan oinarrituta.

Zelako autoestimua dauka galegozko kulturgintzak?

1980ko hamarkadan, batez ere, sormenak indar handia izan zuen kultura arlo guztietan; literaturan, musikan, arte plastikoetan... Arazoa, beharbada, 30 urtetan hazi horrek behar beste fruitu eman ez izana da. Sormena eta lana bada go, baina enpresa mugimendua eta administrazioen laguntza falta da. Muga asko gainditzeko puntuan egon eta nazioartera zabaltzera gindozenean, krisia eta babes publikoaren murrizketa etorri ziren.

Asteburu honetan Culturgal azoka ospatuko duzue.

Bai. Durangoko Azokara etor-

tzeak ilusio handia egiten dit, Culturgalen sorreran gure eredu izan zelako. 2007an sortu zen. Profesionalentzako informazio asko daukan azoka da, eta publikoarentzako erakusleioa, herritarrak euren kulturagaz harro sentitzeko lekua.

“ Os Resentidos galegoz kantatzen zuen lehen pop taldea izan zen; gaur ia 100 talde daude ”

Administrazioaren politikak eragin zuzena dauka kulturgintzan.

Ezohiko egoera baten gaude. Hizkuntzaren normalizazioan aurreko gobernuak pauso batzuk eman zituen, eta herritarren zati handi batek pauso horiek naturaltasun osoz hartu zituen. PPko gobernuak atzerapausoak egin ditu legedia aldatuta: Horrek eragin zuzena dauka industria kulturalako arlo guztietan. Dena den, eskuma boterean egon zein ez, diskurtso politikoa normalean kulturak ez du baliorik izaten,

ez bakarrik identitateari begira; enpleguan eta aberastasun ekonomikoan daukan eraginari buruz ez da berba egiten.

Filmanova ekoiztetxean 12 urte daramatzazu beharrean. Ikus-entzunezko ekoizpenak osasuntsu daude?

Azken urteotan asko ikasi dugu eta produkzioa genero eta formatu askotara zabaltzea lortu dugu. Galizian horretarako gaitasun handia dago. Arazo handiena merkaturatzean eta nazioartera zabaltzean daukagu.

Musika eta zine arloan jardun duzu, besteak beste. Gazteek galegoz kontsumitzeko ohiturarik badaukate?

Kontsumitzaileak badira, produkzio hori eurengana heltzen den neurrian. Datu esanguratsua da, Os Resentidos taldea sortu genuenean, duela ia 30 urte, pop munduan galegoz kantatzen zuen talde bakarra ginela; gaur ia 100 talde daude galegoz kantatzen dutenak. Zabalkunde handia egon da.

Zelako etorkizuna dator?

30 urte baino gehiago daramatzat zirkuan lan egiten, eta baidakortasun kritiko bat edukitzea dagokit. Daukagunetik sortzen jarraitzea da kontua, eta elkar-lana da giltza.



Galiziako lagunak dira gonbidatu, Azoka hasteko eta amaitzeko

Azokaren inaugurazio ekitaldian eta amaierako jaian leku berezia edukiko dute Galiziatik etorritako kultura sortzaileek



Galiziako kulturgintzak eta Euskal Herrikoak antzerako egoerak bizi izaten dituzte maiz. Horren gaineko hausnarketa egiteko hainbat aukera egongo da Durangoko Azokan, eta horrez gain galegoz ekoiztako kultura emango dute eza-gutzero.

Euskal Herriko eta Galiziako sortzaileek elkarlanean egindako proiektuen berri ere edukiko dugu, besteak beste, Galeusca idazleen federazioa edo musika arloan sortutako Akrobatik proiektua.

Bi kulturen arteko hartu-emana jorratuko dute hainbat ekitalditan

ABENDUAK 4

12:00: Galizia denok gara inaugurazio ekitaldia Aretoan Euskal Herriko eta Galiziako erakundeetako ordezkariak izango dira. Ekitaldiaren amaieran, Anton Reixa sortzaileak hitz egingo du.

18:30: Euskaraz eta galegoz olerki emanaldia Aretoan Harkaitz Canok, Leire Bilbaok eta Urtzi Urrutikoetxeak galegora itzulitako euren olerkien errezitaldia eskainiko dute bi hizkuntzetan.

ABENDUAK 5

13:00: Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz? berriketaldia Aretoan Dario Xohan Cabana idazle galegoak eta Pako Aristi euskaldunak hizkuntza bietan literaturak bizi duen egoeraz berba egingo dute. Euskal Herrian bizi den Xosé Estevez idazle galiziarra izango dute zirikatzaile.

ABENDUAK 7

12:30: Idazleak Galeuscan: iragana eta etorkizuna berriketaldia Aretoan Asociación Escritores en Lingua Galegako Xosé Estevez eta Euskal Idazleen Elkarte Fito Rodríguez en solasaldia.

18:30: Hizkuntza gutxituak eta antzerkigintza

mahai-ingurua San Agustín kulturgunean Artur Trillo Talía Teatro taldeko kideak euskal antzerkigile batekin batera galegozko eta euskarazko antzerkigintzari buruz berba egingo du.

ABENDUAK 8

Ikus-entzunezkoak

Irudienean
11:00: Musiklip galegoak
12:00 / 18:30 Film laburrak
'Gato encerrado'
'Radiografía dun autor de tebeos'
'Instalación'
'Estereoscopia'
'Birdboy'

13:30: Digna rabia dokumentala

16:00: Soinuaren garrantzia aurkezpena Aretoan Vigoko Sinsalaudio kolektiboak abian duen eskolak gizartearen memoria akustikoa berreskuratzeko lanean dihardu.

20:00: Akrobatik amaiera jaia Plateruenean Ugia Pedreira, Fred Martins eta Mikel Urdangarinek Galiziako eta Euskal Herriko herri musikagaz sortutako mestizaia batu dute Akrobatik proiektuan.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



2
URTE

1000
b/min
6 kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA SUNNY 610
275 € edesa



2
URTE

1200
b/min
6 kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F2612
315 € FAGOR



2
URTE

1000
b/min
6 kg

A⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE20010EE
345 € BOSCH



2
URTE

1200
b/min
7 kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA EWP127100
360 € Electrolux



2
URTE

1200
b/min
7 kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA L-72750
385 € AEG



2
URTE

1200
b/min
7 kg

A⁺⁺ Sailkapen energetikoa


GARBIGAILUA WM12Q470EE
399 € SIEMENS



2
URTE

A⁺ Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA 2LF-013SX
395 € FAGOR



2
URTE

EH-651TF11E INDUKZIOA
430 € SIEMENS



2
URTE

A⁺ Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
460 € FAGOR



2
URTE

A⁺ Sailkapen energetikoa

INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220
LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M
950 € AEG



2
URTE

1440
X
545
X
600

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA ZEN-F211
310 € edesa



7
URTE

1850
X
600
X
600

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA FFJ-6725
575 € FAGOR



2
URTE

2000
X
600
X
600

A⁺ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA KGN 39VI20
660 € BOSCH



2
URTE

26 LK 330
TV 26"

275 € LG



2
URTE

UE32D4003
TV 32"

299 € SAMSUNG

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.



“Borondate politikoa falta da galegoa berreskuratzeko”

Xosé Estevez idazle eta irakasle galiziarak hango eta hemengo literaturari buruzko mahai-ingurua gidatuko du hilaren 5ean

Zelakoa da literatura galegoaren egoera?

Oso osasuntsu dago; idazle kantitatea eta kalitatea inoiz baino handiagoa da. Idazleen elkartean 500 idazle baino gehiago daude, eta elkartetik kanpokoak ere hor daude. Galegoaren erabilera, baina, behera doa. 1980ko hamarkadan biztanleen % 82k berba egiten bazuen, orain % 40 inguruk egiten du. Hirietan galdu da gehienbat. Diglosi egoera argi batean gaudu; administrazioan, komunikabideetan, elizan... ez da galegoa erabiltzen. Ez dago galego hutsezko egunkaririk. Galicia Hoxe zegoen lehenago, baina zarratu egin dute.

Administrazioaren papera aipatu duzu.

Gaur egungo Xuntak politika linguizida darama; galegozko komunikabideei eta hizkuntza normalizatorako elkarteei dirulaguntzak kendu dizkie. Norma-

lizazio politikek ez dute funtzionatu. Bipartitoak hezkuntzan elebitasun formula ipini gura izan zuen, baina elkarre batzuk oso kontra agertu ziren. Gaztelera alboratu gura zela esaten zuten, eta galegoaren kontrako giroa sortu zen. Hori oso ondo etorri zaio oraingo Xuntari; dekretuen bitartez galegoaren kontrako politikak egin dituzte.

Argi izpirik ikusten duzu?

Egoera aldatzeko gobernua aldatu beharko litzateke, eta gaitz ikusten dut hori. Hezkuntzan eta osasungintzan murrizketa handiak egin ditu Xuntak, eta protesta ugari egon dira, baina hala eta guztiz ere PPren aldeko boto kopurua hazi egin da. Epe motzean ez dut konponbiderik ikusten, borondate politiko kontua delako hau.

Kultura arloko mugimenduak zeresana edukiko du.

Kultura eta hezkuntza arloko

mugimenduak ez du jende asko batzen; elitista da. Banaketa sozial argia dago hizkuntzari dagokionez: prestigioa duen eliteak gaztelera egiten du; galegoz, arlo baxuenak eta kultura arloko eliteak. Kontzientziazio handia eduki ezean, jendeak ez dauka galegoz berba egiteko premiarik eta hizkuntzarekiko sentimendu hori. Deigarria da kalean heldu bi galegoz berba egiten ikustea, eta ume bat gerturatzean hari gaztelera egitea. Katalunian eta Euskal Herrian dagoen zerbait falta da; nazio harrotasuna falta da.

“Galiziar literatura oso osasuntsu dago, baina hiztun kopurua asko bajatu da”

Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko idazleak Galeusca federazioan batzendirira. Zelan baloratzen duzu elkarlan hori?

Topaketa interesgarriak izaten dira elkar ezagutzeko. Batez ere, idazle galegoek eta euskaldunek antzeko ardurak dauzkagu; kultur ekoizpenak bultzatzea eta kontzientziazioa. Kataluniarrek, egoera normalizatuagoa daukatelako agian,



ekonomia arloko kontu batzuetan sakontzen dute gehiago.



Bata bestearengandik zer ikasi dezakegu?

Galiziak euskararen erreperazio arloan egin den lanetik ikasi beharra daukala uste dut. Gertatzen dena da ez dagoela

botere ekonomikorik, Xuntak ez daukalako borondate politikorik. Galiziak Euskal Herriari, aldiz, ekarpen garrantzitsua eman diezaioke haur eta gazte literaturan. Dagoeneko liburu ugari itzuli dira galegotik euskarara; arlo horretako galiziar produkzioa oso interesgarria da.



Azokan salgai



Durangaldeko egutegia 2012

anboto
komunikabideak



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzezko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com



Abenduaren 5ean

- 10:00 Haur Literatura Aretoaren aurkezpena: *Kultur adierazpen berriak*.
- 10:30 Azoka ezagutzen. Azoka barrutik ezagutzeko hainbat ekintza (ikastetxeekin).
- 10:30/16:00 Tailerra: *Jolasean* (Arteleku-Tabakaleraren eskutik gazte eta gurasoei zuzenduta, bideojokoei buruz).
- 12:30 Tailerra: txapak eta mandalak (Alboan). Hiru urtetik gorako neska-mutilei zuzenduta.
- 13:30 Zinema euskaraz: *Horton*.
- 16:00 Aurkezpena: *Txomintxo eta perutxo bakarrik geratu dira etxean* (Peru Madalena-Elkar). Sei urtetik gora.
- 17:00 Aurkezpena: *ABCD berri bat* (Yolanda Arrieta eta Yolanda Mosquera-Mezulari).
- 17:30 Aurkezpena: *Lanbroa* (Arrate Egaña eta Jokin Mitxelena-Mezulari). 4-7 urte.
- 18:00 Aurkezpena: *Muxurik nahi?* (Castillo Suarez eta Eider Eibar-Mezulari). 4-7 urte.
- 18:30 Aurkezpena: *Maddi eta txistua* (Haladzipo) 0-5 urte bitartekoentzat.
- 19:00 Irakurketa txokoa.

Abenduaren 6an

- 10:30 Irakurketa txokoa.
- 11:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak: *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango* (Mr. Misto Films eta Santiago Jauregizar).
- 12:00 Aurkezpena: *Zazpikolora* CDa; *Ongi etorri Pupu eta Lore* DVDa eta *Bonberenea txaranga & Pirritx, Porrotx eta Marimotots* CDa. (Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea ekintzak).
- Hiru urtetik gora.
- 13:00 *Erramunen soinua*, ipuina eta diska (Bizkaiko Trikitixa Elkarte)
- 13:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango*.
- 13:30 Irakurketa txokoa.
- 15:00 Karaokea.
- 16:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango* (Mr. Misto Films eta Santiago Jauregizar).
- 16:00 Tailerrak eta aurkezpena: Esku jokoak liburu-diskoaren inguruan tailerra Oihana Esquirolekin. *Galix eta Galtzagorri* (idazle galego eta euskaldunak elkarri ipuinak kontatzen).
- 17:00
- 19:00 Irakurketa txokoa.
- 19:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak: *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango*.

Abenduaren 7an

- 10:00 Azoka ezagutzen. Ekintza bereziak.
- 11:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak: *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango*.
- 12:30 Ipuin kontaketa (Alboan). Hiru urtetik aurrerako neska-mutilentzat.
- 13:30 Irakurketa txokoa.
- 15:30 Ikus-entzunezkoak.
- 16:00 Ikus-entzunezko proiektzioa eta tailerrak: *Caxiña de mistos: un misterio para Tintiman en Durango*.
- 16:30 Aurkezpena eta tailerrak: *Mari, haitzuloetako dama eta Tartalo, begibakarra* (Maluta).
- 17:30 Aurkezpena: Software-multimedia: *ZooLoco ou Zoo Zoraa* (Imagin eta Elhuyar). 3-6 urte.
- 18:30 Irakurketa txokoa.

Abenduaren 8an

- 10:30 Irakurketa txokoa.
- 11:00 Kalejira Azokatik + Ikuskizun musikala +Argazki saioa: Pertsonaia mitologikoak (Izenaduba Basoa)
- Zinema euskaraz: *Percy Jackson*.
- 13:00 Ilustrazio tailerra: Miren Gonzalez (Galtzagorri). 3-5 urte.
- 15:30 Ipuin kontalaria: Rosa Mari Martinez.
- 16:30 Kontu kontari eta margotzen: *Lur gorrian barrena* (Maluta eta Strubell). 3-8 urte.
- 17:30 Antzerkia: *Asmakizunak salgai* (jakin eta Jolas). 3-12 urte.
- 17:30 Tailerrak: Ilustrazio tailerra Miren Gonzalezekin. 6-8 urte.
- 19:00 Irakurketa txokoa.

Biharko irakurleak izango direnei ere euren lekua eginez

Harrera ezin hobea izaten du etxeko txikienen artean Berbaro euskara elkarteak antolatutako Haur Literatur Aretoak



Badira 22 urte Berbaro euskara elkarteak sortu zena, eta beste horrenbeste bete ditu Haur Literatur Aretoak. Etxeko txikienen artean irakurzaletasuna bultzatuz, ikastetxeetan eman zituen lehenengo pausoak. Oraindik ere badirau lotura horrek, liburuekin lotura sendotuz eta Durangoko Azokan ere bere lekua hartu du Haur Literatur Aretoak. Duen harrera "ezin hobea" da, Oihane Barrutia Berbaroko kidearen esanetan: "Asko eta asko dira Azoka ez eze Haur Literatur Areto hurreratzen direnak".

Umeak eta gazteak literaturara hurreratu guran hainbat ekitaldi antolatuko dituzte, aurtan ere, Haur eta Literatur Aretoan.

Tailerrak ere antolatu dituzte, transmisioa landu guran

Umeei egokitutako hainbat aurkezpen egingo dituzte Haur Literatur Aretoan

Nobedaderik ere egongo da gainera. Izan ere, tailerrak gehitu dizkiote lotutako egitarauari: "Umeak eta gurasoak elkarregaz egon daitezen gura dugu, eta transmisioa bultzatu". Proba moduan abiatu duten ekimen honetan parte hartu ahal izateko izena eman behar da.

Adinari egokitutako liburu aurkezpenek, ipuin-kontalariak eta antzezpenek ez dute hutsik egingo. Era berean, herri gonbidatua den Galiagaz batera ere antolatu dituzte ekitaldiak. Barrutiak adierazi duenez, Durangoko Azoka euskal kulturagaz lotutako produktuak zabaltzeko erakuslelhoa da, eta gaztetxoenei ere euren tokia eman gura die Haur Literatur Aretoan.



San Nikolas Eguna

IZURTZAKO I. GaztARDOn FERIXA

ABENDUAK 6

Asteartea, 11:00-15:00


ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



ARGINTXU
KULTUR
ELKARTEA





Otra mecánica es posible

Bestelako mekanika bat posible da



Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Tailer mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidarieek eta erabiltzaileek prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzarik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordezeko piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake-eta.



Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordezeko piezen denda ere badugu behar duzun guztia eskuralzeko.



Aste osoan zehar (astelehenetik igandera)

Bezeroen beharren arabera egokituz, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera 09:30etik 21:30era ateak zabalduz, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa **azkar**

Eman izena trebakuntza ikastaroetan!

Olio eta filtroa aldatzea

24€
-tik
hasita

Errekuntza-tokia eta haizearen filtroa aldatzea

44€
-tik
hasita

RTV Iurreta
Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km.
UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea
48215 Iurreta
Tel.: 94 681 79 14

RTV Basauri
Bilbondo ZK - Artunduaga
Bastegi kalea 1A
48970 Basauri
Tel.: 94 400 87 60

RTV Barakaldo
Max Center ZK
Karega kalea, 35 3A
48903 Barakaldo
Tel.: 94 490 47 28

info@reparatuvehiculo.com - www.reparatuvehiculo.com



Prezio hauek eskainiriko zerbitzu guztiak erabiltzeko 3 o. 15 min.-an erabiltzeko box bat alokatzeari lotuta daude, Gulf10w.40 olio, Mann filtroak, eta RTV tresnak eta piezak erabiliz. Begiratu beste prezio batzuk.



Zamorako apaiz kartzelari buruzko liburua, Txalapartagaz

Angel Zelaieta mallabitarrak koordinatu du 1968 eta 1976 bitartean 40tik gora apaiz euskaldun hartu zituen kartzelari buruzko liburua. Hilaren 8an aurkeztuko dute

Zelan sortu da liburu honetarako ideia eta argitaratzeko aukera?

Kalegana elkartetik jaio zen liburu hau kaleratzeko asmoa: Kaltzada, Lekue, Gabika eta Naberanek osatzen dute elkarrekin, eta eurak izan dira eragileak. Eurek egin zidaten parte hartzeko proposamena, eta elkarrekin egin dugu lan.

Dokumentazioa biltzea izan da libururako zuk burutako lana...

Handik eta hemendik informazioa eta dokumentazioa biltzen eta bibliografia aztertzen jardun dut. Zorionez, 1968-1969 urte horietan kaleratutako dokumentazio asko gordeta eduki duen Jabi Agirre elorriarrak erraztu digu euskarazko dokumentuak eskuratzea. Lanean hasi ginenean agertu zen Jabi Agirre, berak karpeta bat zeukala esanez.



Jabi Agirre elorriarrak erraztu digu euskarazko dokumentuak eskuratzea



Zer dokumentu dira horiek?

Hor agertzen da, esaterako, 1967an ehun abadek Bizkaitik Bandasko greba zela eta bidalitako euskarazko gutuna.

Zamorako kartzelan preso egon ziren abadeen testigantzak batu dituzue. Garrantzitsuena, interesgarriena da ordu-


ko protagonista izan zirenek, Zamorako kartzelan preso egon zirenek, idatzi dituztela euren testigantzak.

Hain zuzen ere, 40 urte bete dira orain-tsu ihesaldi saiakera hartatik...

Bai, Zamorako kartzelan preso egon zirenek buruturiko ekintza gogorrenetarikoa izan zen ihes egiteko asmo hori. Geroago ere burutu zituzten hainbat ekimen kartzelan: sua eman zioten behin, kasurako. Entzute handiko ekintzak izan ziren.

Durangaldeko hainbat lagunen lekukotza ere jaso duzue liburua.

Zamorako kartzelan egon ziren Xabier Amuriza, Luis Mari Bereziartua, Periko Berrioategortua, Jabi Agirre... Eta lurretan apaiz egon zen Julen Kaltzada.



Misterioa eta tragedia, eskultore eta hiltzaile baten azalean

Izuen eskultorea landu dute Josu Unzueta idazle iurretarrak eta Iraia Okina ilustratzaile durangarrak



Kontaiguzue zelan sortu zen liburua kaleratzeko ideia.

Josu Unzueta: Lehenengo ipuina idatzi nuen, orain dela zortzi bat hilabete. Gero jakin nuen Markina-Xemeinen Peru Abarka lehiaketa antolatzen zutela, eta azken momentuan aurkeztu nintzen. Ez nuen irabazi, baina bai finalera ailegatu. Mezulari argitaletzeko Marieli Ituarte da antolatzaileetako bat, eta interesa agertu zuen nire lanarekiko. Ilustratzaile bat aukeratu behar nuen, eta Iraia Okina gogoratu nintzen, *Ilanien* egindako lana eza-gutu nuelako.

Iraia Okina: Testua irakurri nuen eta irudiak sortzen hasi nintzen. Niretzako erronka berria zen; orain arte zerbait poetikoagoa landu izan dut, eta hiltzaile baten istorioa da hau.

Zer aurkituko dugu liburuan?

J.U.: Protagonista nagusiak pertsonaltate bikoitza dauka. Alde batetik, eskultore ezaguna da eta familiagaz bizi da



Unzueta: Gizakiok gure baitan dauzkagun kontraesanetan arakatu gura nuen



etxean. Bestetik, barruan munstro bat dauka, hiltzailea da. Artea heriotzagaz lotzen du. Tragedia da.

I.O.: Irudiekin beste ikuspegi bat ematen saiatu naiz; Josuk gehien azpimarratzen duena irudikatu beharrean, aporazio bat egiten. Ez da dekorazio soila.

Hainbat mundu gure baitan.

J.U.: Barruan dauzkagun kontraesantetan arakatu gura nuen. Alde bat publikoa daukagu, arrakastazkoa, baina gizakia sekulako basakeriak egiteko gauza da. Ipuinean diot denok daukagula kriminal bat barruan, baina kontrolatu egiten dugula; protagonistak ezin du.

Zelan garatu duzue lana?

J.U.: Nik testua lehenetik idatzita neukan, eta lehiaketarako txukundu eta egokitu besterik ez nuen egin. Lan handiagoa izan da Iraiaarena.

I.O.: Nahiko denbora izan dut ilustratzeko. Normalean guri ez digute asti larregi ematen, arineketa batean egiten dugu gure atala. Halakoetan, blokeatu egiten naiz sarritan; egun guztiak ez dira berdinak-eta. Denbora edukiz gero, ez duzu hainbeste behartzen.

Ahotsenean aurkeztuko duzue 6an.

J.U.: 12:00etan izango da. Irakurri eta marraztu egingo dugu zuzenean, Ander Erzila musikariaren laguntzaz. Zozketa bat ere egingo dugu ikusleentzat.

Hitz
liburu-denda

artekalea 14.
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

GANTZA ZELAIETA BIZITOKIA

PREZIO EZINHOBEA! Abadiñon (Muntsaratz auzoan)

Kalitate gorena bermatuta (etxaurre aireztatua, ladreiluzko barruko trenkada-multzoa...)

Aukeratu Lorategidun Behean edo 2 eta 3 logelako terrazadun altuerakoan artean

Ipur Kutzak -ren finantzazioarekin

Informa zaitetz! **T. 944 247 566**

Ibañeta de Bilbao, 3-3. -1 dptua. BILBAO
www.laurendi.es

LAURENDI
PROYECTOS Y PROMOCIONES

ERROTA ZARRA
PUB RESTAURANT

Menu bereziak Azoka egunetan
3 solairuko pub-jatetxea

Fraí Juan Zumarraga, 31
Durango. Tel.: 94 620 17 39

ESKUALDEKO



Euskadi Bihotzean: Oroitzapenak

Jose Antonio Ardanza
Argitaletxea: Txertoa-Abarka

«Ez dugu nahi zatituta, amorratuta eta aurrez aurre biziko den gizarterik. Ez dugu nahi irabazlerik, ez eta galtzailerik ere. Bakea nahi dugu, gizarte ireki eta bateratua, norberak bere hitza indarrean ipini dezan, bere arrazoia eta bere proiektua», dio liburu honetan Jose Antonio Ardanza, 1985etik 1999ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoa gobernatu zuen lehendakariak. Euskal abertzaletasunaren sustaiak, Gerra Zibilaren hondarrak eta

frankismoaren zapalketa, ETAren indarkeria, Estatuko botereen indarkeria, GALen agerraldia eta haren ondorio «lazgarriak», demokraziaren berreskurapena eta euskal autogobernuaren eraikuntza ageri dira lan honetan.

Sasoi luze baten argazkia taxutzen du Ardanza: Elorrioren eta Ondarroan bizitako haurtzaroa, seminarioa, klandestinitate garaiko lehen jardun politikoa, EAJrekiko konpromisoa, Arrasateko alkatetza, Gipuzkoako diputatu nagusi bezala betetako egin-kizunak eta, azkenik, Jaurilaritzaren buru egindako aldia.



Euskal Harriak


Joseba Azkarraga
Argitaletxea: Alberdania

Joseba Azkarraga abadiñarra soziologian doktore da, eta saiakeran murgildu izan da behin baino gehiagotan; Juan Zelaia eta Mikel Zarate sariak, besteak beste, eman dizkiote bere lanengatik. *Euskal Harriak* dator orain, Gabriel Arestiren esanak izenbururako inspirazio legez hartuta.

Zibilizazio krisia ei da gurea, eremu ugari baitaude «arnasestuka»: ekonomia, energia, klima, ekosistemak, gizarteak, elikagaiak, kultura, hizkuntzak

eta alderdi psikiko-espirituala ere bai.

Liburua kokatzeko hasi garela aldi historiko berrian sartzen dio: «Zibilizazio moderno-industrialaren beherraldian. Hazkunde-osteko garaian, alegia». Zalantza ei da beherraldi hori nola antolatuko den, izango ote den bide ordenatua, emankorra eta oparoa; edo desordenatua, kaotikoa eta hondagarria. «Euskal Herrian ez dugu ireki espazio mental gehiegirik XXI. mendeko debaterik inportanteenerako, horren baitan egongo bada ere gure etorkizuna. Auzi hori ekarri behar genuke ezbai publikoaren arteria zentralera», azpimarratzen du.



Scanner

Leire Bilbao
Argitaletxea: Susa

Bere bigarren poema liburua argitaratu du Durangon bizi den Leire Bilbao jaiotzez ondarrutarrak. 2006an *Ezkatak* kaleratu eta gero, *Scanner* liburuaren baitan eskaintzen dizkigu olerkiak.

Lantokietako inprimagailuen mahaikide, ospitaleetako medikuen laguntzaile edo hegazkinean igo aurretik saihestu ezinezko hesi. Eskuak dira, eguneroko bizitzan aurki daitezkeen makinak. Haien presentziak ohar-

tu zen Bilbao idazten ari zela. «Konturatu nintzen eskanerra eguneroko bizitzako elementu bat gehiago bihurtu zela, eta egunero topo egin dezakegula eskaner batekin». Hori horrela, eguneroko bizitzako elementuak bere eskaner propietatik pasatu ditu, itxuraz ezkutuan dagoena begi bistan jartzeko. Hala osatu du *Scanner*, Susa argitaletxeak kaleratu duena.

Makina batzuek irudi eta testuak hartu eta gorde egiten dituztela eta beste batzuek barrura begiratzen dutela kontuan hartuta, «idazleok ez al dugu gauza bera egiten idazterakoan?» galdetzen du.



Oihana hirian

Leire Bilbao
Argitaletxea: Elkar

Poesiaz gainera, haur literaturaren esparruan ere sortzen duen idazlea da Leire Bilbao. Estilo honetako bederatzigarren liburua du *Oihana hirian*, Elkar argitaletxearen bidez umeengana ailegatzeko saiaturako dena.

Oihanak, pertsonaia nagusiak, hirian biziko duen istorio bat dakarkigu Bilbaok. Tituluagaz berba-jokoa eginda, herri txiki batean bizi den neska hiri handian aurkituko dituen sorpresak kontatuko ditu. Hirian ez dago

ia zelairik, eta bai osterako espaloiak; jendea, berriz, euli-taldean moduan dabil hara eta hona.

Semaforoa zelan gurutzatu behar duen ondo erakutsi diote gurasoek, eta argi berdea piztean zebra-bidea igarotzen hasten da. Halako batean, ahots ezezagun bat entzuten du: «Ez al dakizu zebra-bidea gurutzatzen?», diotso. Zebra bera da berba egiten diona, bere buztana zapaltzen dabil-eta. Hortik aurrera, hirian oihana ikusten hasiko da; elementuen eta pertsonen ordezkariak ikusiko ditu liburuaren pertsonaia txikiak. Pertsonen «animaleria» desbrikatuko digu.



Tontorretik begira

Juanito Gallastegi
Argitaletxea: Labayru ikastegia

Abadetzan 50 urte bete zituen Juanito Gallastegi durangarrak 2008an. Ibilbide horren ostean, *Tontorretik begira* izeneko liburua kaleratu du. Ez da biografia bat, hori argi utzi gura izan du; bere hainbat bizipen eta hausnarketaren bat batu ditu liburuan.

«Abade egin nintzela urte ezteguak izan ziren orain dela hiru urte, eta hori zela-eta baten batek esan zidan Anboton-eta bestelako lekuetan idatzitako-

ak batu eta liburuxoren bat egin ahalko zela. Ander Manterola Labayruko buruagaz egon nintzen, eta ondo iruditu zitzaion». Sarrerak ere egitea eskatu zioten Gallastegiri, bere oroitzapenekin. Beraz, bi zati eduki behar zituen liburuak: artikulua eta oroitzapenak. Horixe izan zen liburuaren sortze-prozesua. Azkenean, krisiagatik hiru urtez geldirik egon ondoren, oroitzapenekin soilik argitaratu dute liburuak.

Gerra sasoiak, bere euskaltzale-tasunaren sorrera, abadetzako egoaldiak lurretan, Elorrioren, Markinan... hainbat gertaera kontatzen ditu.



Heldu den matxinada

Oier Gonzalez eta Zigor Garro
Argitaletxea: Txalaparta

Oier Gonzalez durangarraren lehenengo lana ere izango da salgai Durangoko Azokan. Zigor Garro espetxekideagaz –Gonzalez libre dago gaur egun– ondu du *Heldu den matxinada* liburua. Ez dakigu nork idatzia den, «Batxorde Ikusezina» izenez sinatua dagoelako. Itzultzaile lana egin dute Gonzalezek eta Garrok.

2008an frantziar polizia komuna autogestionatu bat erasotu zuen Tarnac izeneko herrixkan, eta zortzi gaz-

te atxilotu zituzten. Hainbat sabotaje ekintza leporatu eta ezelako frogarik barik kartzelatu ei zituzten. Horietako bati, Julien Goupati, liburu hau idaztea leporatu zioten polizia.

Hala hurbildu zen Gonzalez lan honetara, «kuriosoa» iruditu zitzaionalako «intelektualen herrialdean liburu bat idazteagatik inor terrorismo aferekin nahastea». Atxilotetok zirela-eta, hainbat intelektual altxatu ziren horren kontra, eta polemikak obra gehiago zabaltzea ekarri zuen. Bi pertsona inkomunikaturen arteko komunikazio zubi bilakatu zen liburuak.

ARGITALPENAK >



Iurreta eleizateko 1911.eko banderaren mendeurrena

Jon Irazabal
Argitaletxea: Gerediaga

Gordetzen den lurretako bandera zaharrenak 100 urte bete ditu aurren, eta hamaika ekitaldi eratu dituzte urte osoan zehar banderari gorazarre egiteko. Bide batez, historia errepasatzeko aprobetxatu dute mendeurren berezi hori, eta hor kokatzen da Gerediagak Jon Irazabalen eskutik publikatutako liburua.

Ekitaldi-sorta antolatzeke Herri batzordea osatu zuten urte hasieran, eta herrian zabaltzeko ahaleginetan

ibili dira egunez egun, bandera dantzariena soilik beharrean, herri osoarena dela irizita. Urte askoan dantza taldeak erabili izan du, batez ere, eta gaur egun dantzarietz gainera udalak ere erabiltzen du.

1911ko irailaren 27an du jatorria omendutako banderak. Data ikusirik, dantzariet herriko San Migel jaietan erabiltzeko ekarriko zutela uste izan da. Hala ere, bandera baten gainean jasotako lehenengo datua 1888an kokatuta dago. Antza denez, bandera oso garrantzitsua zen herrian, eta ez zen edozein unetan erakusten.



Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean

Peru Magdalena
Argitaletxea: Elkar

Irakurle berrientzat sailkatu dute Peru Magdalena durangarraren azken lana: *Txomintxo eta Perutxo bakarrik geratu dira etxean*. Iosu Mitxelenaren ilustrazioekin jantzita dator, gainera. Magdalenak ilustratzaileaz dioenez, "perspektibagaz asko jokatzeko du: umeen ikuspuntutik, handiagokak dirudite espazioek, denbora luzatu egiten da... Bere irakurketagaz asko eman dio istorioari: kolore ilunagaz hasten da, eta aurrea egin ahala argitzen doa marrazkien

kolorea...". Umeei zuzenduriko istorio honetan, haurtzaroko beldur eta amesgaiztoak azaleratuko dizkigu.

Umeak oso sasoi bizia dela uste du Magdalenak. "Momentu pozgarriak zein ilunak oso indartsuak dira umetan. Segurtasun ezaz eta beldurrez, gauzak deskafinatu barik gura izan dut jardun. Umeartik bizirik aterata eta honaino ailegatu gara; ez da hain txarra", bere ustez.

Honen aurretik *Ilania* sortu zuen Peru Magdalenak, Iraia Okina ilustratzaile iurretarragaz batera. Poesian ere ibilitakoa da artista durangarra.



Kartzelako poemak

Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: Susa

Bost urteko espetxealdian (1980-1985) idatzitako poemez eta presondegitik ihes egin osteko pieza batzuez azaldu zuen gaitu esperientzia Joseba Sarrionandiak, 1992an argitaratutako *Kartzelako poemak* liburuan. Orain edizio berrituan plazaratu du Susak, testua gaurko grafiara aldatu-rik—titulua ere *Kartzelako poemak* zen lehen— eta sei poema gehiagaz. Poema liburuak bi atal nagusi ditu: batek, luzeena, «Kartzelako poemak 1980-

1985» da; espetxean igarotako garaian idatzitako poemak biltzen dituena. Eta, bestetik, laburragoa den «Postscriptum» atala, Martuteneko espetxetik ihes egitea lortu ondoren idatzitako poemak, bizi izan zuen esperientziaren ondokoak. Azkeneko poema 1991koa da.

Grafia gaurkotuz eta poema berriez gainera, baditu beste berrikuntza batzuk ere iurretarraren liburuak: Lander Garroren azala eta Jose Luis Otamendiren hitzaurrea.

Urteak pasatu ahala, bestalde, liburu honetako bederatzik poema musikatua izan dira.



Narrazio guztiak

Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: Elkar

Elkar argitaletxeak *Litterae Vasconiae* ipiniko du salgai Durangoko Azokan. Joseba Sarrionandia iurretarraren 1980ko hamarkadako hiru ipuin liburu-erako narrazioak biltzen ditu, goitik behera berrikusi eta zuzenduta, azaldu dutenez.

Narrazioak (1983), *Atabala eta euria* (1986) eta *Ilar aldeko orduak* (1990) dira oinarri legez hartutako hiru liburu horiek. Horretaz gainera, ordea, orain arte inoiz argitaratu bako ipui-

nak ere bildu dituzte liburu honetan, gazterik idatzitakoak, poliziak atxilotua izan aurretik.

Narriban Espainiako Kritika Saria eskuratu zuen *Atabala eta euria* gaz, 1986an. Bestalde, iurretarraren liburu hauek nazioartean ere topatu zuten merkatua; *Narrazioak* katalanez eta italieraz argitaratu zuten, esate baterako.

Narrazio gintzaren atalean beste lau lan ere baditu Sarrionandiak gero- ra idatzitako: *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk* (1995), *Lagun lzoztua* (2001), *Kolosala izango da* (2003) eta *Gau ilunekoak* (2008).



Txisturako musika bilduma 3. alea

Rodrigo A. de Santiago
Argitaletxea: Silboberri

Bilduma honetan jasotako material musikala bere sasoian Rodrigo A. de Santiagok txistua jotzeko metodo baten harira sortutako lana da. Musikiariaren gaixotasunak eta ondoriozko heriotzak egitasmoa bertan behe- ra utzi zuten. Silboberri elkarte duran- garrak hartu du orain lan hori argitaratzeko ardura.

Aitor Amilibia irakasleak gainbe- giratu ditu idatzitako, sailkatu, egokitu, osatu eta argitaratu ahal izateko ger- tu izateko. Silboberri elkarteak gogoz

ekin dio bilduma horiek kaleratzeko prozesuari, dagoeneko hirugarren alea publikatuz. Gogoz, Rodrigo A. de Santiagoren lanak "balio handia" duelako; bere bizitzako ordu asko beha- rrean eman zituen autoreagaz zor- ran sentitu izanak ere eduki du eragi- na elkarteari inizatibari.

Elkartekoek azaltzen dutenez, batuta duten material guztia argita- ru arte proiektu honetan aurrera egi- tea da euren borondatea. Autorearen semeak, Rodrigo de Santiago Zarcok, laguntza eman die Silboberrikoie mate- riala eskuratzeko orduan.




Zaharrak ez zuen hil nahi

Gaizka Zabarte
Argitaletxea: Susa

Gaizka Zabarte zaldibartarraren lehen argitalpena da *Zaharrak ez zuen hil nahi* nobela. Zabartek idatziriko 154 orrialdeetan misterioa da nagusi; herio- tzazko eta maitasunezko misterioa, beti ere, umorez bustia. Izan ere, gertaer- ra bitxi batek piztuko du familia-sekre- tu baten inguruko ikerketa. Zapatu goiz- batean, istorioaren narrazioaileak ehorz- learen deia jasoko du, esanez bera- gaz berba egin behar duela. Kanpo-

santura iritsitakoan, ehorzleak hilda- ko aitarekin loturikoak kontatuko diz- kio protagonistari. Protagonista zur eta lur geldituko da, izan ere, ez du bere aita (Cosme Gezeta) ezagutu. Ume- tan galdu zuen, eta aitaz ezer gutxi daki. Ehorzleak kontaturikoak miste- rioz beteriko inbestigazioa abiatuko du. Senitartekoengana jo beharko du narrazioaileak, eta aitak jokoan egiten zuen tabernara joan. Gaitza egingo zaio, baina, argi izpirik ikustea. Azke- nik, kontakizuna irauli egingo da, bai- na amaierara arte irakurleak une entre- tenigarriak bezain dotoreak igaroko ditu, sekretuz jositako istorioan.



Normalean ez dut gai zentral baten inguruan idazten, baina konturatu naiz gai batzuk errepikatu egiten direla: 36ko gerra, literatura eta musika, gizarte mailako miseriak eta arazo sozial eta politikoak... Eta batzutan nire barruko intimitateari buruz ere idazten dut. Konturatu barik gai horiek buruan edo bihotzean bueltaka dauzkat. Uste dut poema guztiek estilo bat dutela; bai munduari begira bai nire etxe barrukoari begira, begirada humanoa daukate, eta askotan errebeldea. Uste dut hori dela guztia lotzen duena. Bat-batean egoera bat ikustean edo gogoratzean hunkitu egiten bazaitu, konturatzen zara poema bero bat egon daitekeela.

Agian natorren belaualditik natorrelako izango da. Arlo politikoak, sozialak, pobreak, torturak... Horrek guztiak eragina eduki du nigan. Batzuetan, poesian, pop artearen laztan luze bat ikusten dut oso koloretsua; "ni, eta nire arazoak, eta nire harremanak"... Ez diot hori baztertu

Aurkezpenean Cristina Petite korrikalariak adierazi du kro-sean sortzen den giroa "gertu-koa eta beroa" dela beretzat: "Umeek gozatu egiten dute eta gurasoak eurak besteko gogo-agaz arineketan ikusten anima-tu egiten dituzte gero".

Joseba Jakaren oroimenezko

X. HERRI LASTERKETA

berria hitza

Antolatzaileak:
Euskarria
kirola elkarteak

Laguntzaileak:
Bideazabal
Atletismo taldea
lurretako txirrindularitza
elkartea

2011/12/08

» Ezkurdi plazan - 11:45ean »
(Durango)
7 km

Kuota:
aurrez 10 € - egunean 12 €

Izena emateko epea:
azaroaren 20tik
abenduaren 5era

Izena emateko tokia:
Kebi kirolak
García Ariño kirolak (Durango)
www.kirolprobak.com

DURANGO
Udalak • Ayuntamiento

EROSKI
Sahar komertzial • Erroten jaink

elkar

EUSKAL DENDA >



Artisautzaren magoak hezur-haragizkoak dira

Aurten artisauak ageri dira Euskal Dendako kartelean. Zur, beira, buztinagaz... magia egiten dutenei aurpegia jarri die Arbasok

Aurten Galizia da herrialde gonbidatua eta hango sei artisau etorriko dira

Askotan goraipatu izan ditugu artisau produktuak eta euren baloreak; badakigu produktu bakoitza bakarra dela munduan, ez daukela berdinak diren bi; askotan liluratu izan gaituzte euren formek, koloreek, usainek... eta magiari eskaini diogu gure harretak osoa. Baina magiarik bada magoak ez dira urrun ibiliko, gu konturatu ez arren; eta hezur-haragizkoak dira, euren abileziak eta dedikazioak beste mundu batekoa badirudi ere.

Horregatik, Arbaso elkarteak aurpegia ipini gura izan die mago horiei guztiei, aurtengo kartelaren bitartez. 16. Euskal Dendako kartelean Alex Gonzalez buztingilea, Amaia Conde egur lantzailea eta Igor Obeso beira lantzailea ageri dira euren erremintak eskuan dituztela. Hiruek dioten moduan horixe baita "Nire tailerra, nire ogibidea eta nire bizimodua".

Euskal Denda abenduaren 3tik 8ra egingo dute merkatu plazan. Ohi duten legez, mota

Artetsu Saria
Mariano Santa
Cruzek jasoko du,
bizi osoko lanagatik

guztietako artisauen standak eta erakustaldiak egongo dira. Aurten Galizia da herrialde gonbidatua, eta hango sei artisau gonbidatu dituzte; horiekin osatuko dute sarrerako erakustaldia. Ez da faltako gazteei begirako tailerrik ere.

Zapata arratsaldean Artetsu Sariak emango dituzte, eta bizi osoko lanari eskainitakoa Mariano Santa Cruz gasteiztarrek jasoko du aurtengoa. 11 urte hasi zen botagile lanean, eta orain arte izan du ofizio; gehigarriko lau orrialdeetatik azkenekoan berari egin diogu elkarriketa. "Zenbat gomuta!, eta nostalgia puntu bat ere bai..." Bernat Vidal Arbasoko presidentek gogoratu duen moduan, bera izan baita Arabako eta Bizkaiko azken botagilea.

Orain, urteetan egindako lanaren saria jasotzea dagokio, San Agustinen prestatu duten ekitaldian.

16 Euskal Denda

EUKAL HERRIKO ARTISAUTZAREN AZOKA · FERIA DU SECTEUR ARTESANAL BASQUE · FERIA DEL SECTOR ARTESANAL VASCO*****

Nire tailerra, nire ogibidea, nire bizimodua

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!

- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00

Sarrera: 1,20 €

www.euskaldenda.info



Artisautza bertatik bertara bizitzeko aukera Durangon



DATUAK

Stand kopurua.....	65
Artisautzakoak.....	50
Elikadurakoak.....	9
Galiziatik.....	6

NONDIK

Bizkaitik.....	27
Durangaldetik.....	7
Gipuzkoatik.....	13
Nafarroatik.....	6
Iparraldetik.....	2
Arabatik.....	2

ORDUTEGIA

(abenduak 3-8)

Egunero:

11:00-14:30 / 16:30-21:00

Larunbata, 3: 19:00ak arte

Osteguna, 8: 20:00ak arte

laz RestaurArtek eta Clotak irabazi zuten postu onenari ematen zaion saria

Artisautzari emaniko bost egun biziko dituzte abenduaren 3tik 8ra Durangoko Merkatu Plazan. Artisauen erakustaldiak, produktuen postuak, gazteentzako tailerrak... Urtero legez, eskaintza zabala dago aukeran Arbaso elkartearen eskutik

Joan zen iazkoa eta badator aurtengoa. Sasoi gaitzak izan arren, Euskal Dendak ez dio hutsik egingo urteroko zitari; Hamaseigarrenez artisautzaren unibertsoa Merkatu Plazan kontzentratuko da bihartik eguenera. Inaugurazio ofiziala zapatuan, 12:00etan, egingo dute.

Aurten 66 postu ipiniko dituzte Merkatu Plazako luze-zabalean, eta horietatik 50 euskal artisautzari lotutakoak izango dira. Ohi duten legez, bizkaitarrek gehiengoa izango dute: 27; Gipuzkoak 13 izango ditu; Nafarroak sei; Arabak 2 eta Lapurdik eta Nafarroa Beherak bana.

50 postu egongo dira guztira, eta horietatik zazpi eskualdekoak dira

Produktuei dagokienez, gehienak, bederatz, agroalimentazioaren gainekoak izango dira; zortzi beiraren ingurukoak, eta metalak eta zeramikak zazpina postu beteko dituzte. Ehungintza, zurgintza, kosmetika zein larruaren gaineko postuek ere izango dute euren txokoa.

Postu horietatik zazpi Durangaldean dute jatorria: RestaurArte, Nekane Aira bitxigilea Juan Unzueta otzaragilea, Eneko Unzu bitxigilea, Bernat Vidal hargina eta Jaialdi jantzi tradizionalak. Gainera, aurten nobedadea izango dira nekazaritzako elikagaien produktoreak. Artisau hasibe-

riak ere etorriko dira, Euskal Dendan lehenengoz parte hartuko dutenak: Iker by Aker beiragile bizkaitarra, Eskulan beiragile eibartarra eta Textone zuhaitzetako hostoetik artelanak egiten dituen tailerra.

Euskal Dendaren helburu nagusia "artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz", Bernat Vidal Arbaso elkartearen esanetan. Izan ere, krisi garai honetan, "profesional hauek biziraungo badute, beharrezkoa da artisauen lanak bertatik bertara ikusaraztea".

Euskal Denda egingo den egunetan, hainbat ekintza ludiko antolatuko dituzte azoka barruan. Horrela, bisitariek aukera izango dute, artisauekin batera jardunez, haien mundua ezagutzeko. Gaztetxentzako tailerrak ere aukeran egongo dira ofizioa probatu gura duenarentzat.

Euskal Dendaren informazioa: euskaldenda.blogspot.com www.euskaldenda.info



RestaurArte
Arte Kontserbazioa eta Zaharberritzea

Sasikoa, 22 48200 DURANGO
Tel. 946 218 2 65
restaur_arte@euskaltel.net

Arte kontserbazioa eta Zaharberritzea

- Altxariak.
- Koadroak.
- Zeramika.
- Tailua.
- Urrestatzea eta Polikromatuak
- Erreproduzioak
- Altxariaren Zaharberritzea
- Ikastaroak
- *Asteartea edo osteguna Arratsaldean

- Ezkontza.
- Ospakizun.
- Jaunartze - Bataio.
- Dantzariak, etabar

Euskal Jantziak
-Diseinu eta Jantzigintza-

Bizkargi, 4 lonja
48340 AMOREBIETA
Tel.: 94 673 43 33
jaialdijantziak@gmail.com
www.jaialdi.tk

Jaialdi

Zeramika Eskultura

- Trofeoak
- Muralak
- Lan bakarrak
- Enpresa opariak

Fika, 66
48004 Bilbao
Tel.: 687 422 275 / 606373384
itziarbengoa@hotmail.com
www.lurbeceramika.com

“Erakustaldiekin zuzenean ikusiko dute zelan lan egiten dugun”

‘Nire tailerra, nire ogibidea, nire bizimodua’ leloagaz hiru artisau ageri dira aurtengo Euskal Dendaren kartelean: Igor Obeso beiragintzako artisaua, Amaia Conde zur langilea eta Alex González buztingilea

Zer erakutsiko duzue Euskal Dendan?

Alex González: Nire lankideen antzera egunero egingo ditut erakustaldiak. Lanak zuzenean egiteak balio erantsia du, jendeak bertatik bertara jarritu dezake eta prozesua.

Igor Obeso: Beira puztuaren demostrazioa egingo dut. Askotan etorri naiz Euskal Dendara, baina lehenengoz egingo dut erakustaldia. Uste dut jendeak gustura ikusiko duela prozesua. Gainera, erakustaldiak modu didaktikoan egiten saiatuko naiz.

Amaia Conde: laz lehenengoz etorri nintzen Euskal Dendara. Aurten erakustaldia egin nezakeen eskatu nuen, eta pozik arituko naiz. Jendeagazko hartu-eman hori atsegin dut; dudak galdetzen dizkizute, interesa erakusten dute eta gogoko dut gure lanaren nondik norakoak azaltzea.

Zenbat denbora daramazue zuen ogibidean?

A.C.: Orain hiru urte hartu nuen artisautza ogibide legez, baina zura lantzen urte asko daramat, 15 urte nituenetik. Sasoi hartan nire zaletasun handiena zen.

Ondoren, zuraren lanketa hobbie-a baino gehiago izatea gura nuela erabaki eta orain bost urte formakuntza serioari ekin nion. Orain enpresa txiki baten jabe naiz.

“I.Obeso: “Lehenengo ofizioa barneratu behar da, eta gero berrikuntzan saiatu”

I.O.: 14 daramatzat ofizio honetan. Iparraldean urte bi eman nituen, apendiz moduan. Ondoren, Txekiar Errepublikan eta Palman jarraitu nuen formakuntza. Harrezkero, nire tailerrean lanean nabil. Nire arloan ikerketa egiten saiatzen naiz, urtero produktu berriak atera ahal izateko. Formazioa ez da sekula amaitzen. Besteek zer egiten duten ikusi, neurea erakutsi...

A.G.: Nik 32 urte daramatzat. Pilar Alvarez eta Angel Garrazaren



eskolan hasi nintzen. Igorrek ondo dioen moduan, gure formakuntza ez da sekula ere amaitzen, eta ni ere beti ikasten eta nire jakintza aberasten ahalegintzen naiz.

Igor, zure formakuntza Europan osatu zenuen.

I.O.: Euskal Herrian burdin, zur eta zeramika arloko mundua zabalagoa da. Nire arloan, tamalez, bakarra nintzen eta kanpora jo behar izan zuen. Txekiar Errepublika eta inguruetara joan nintzen, tradizio handia dagoelako eta lantegi asko daudelako. Gaur egun estatu mailan ere

hamar bat gara beira puzten dugunak, eta badugu jakintza elkarbanatzeko joera.

Gaitza al da gaur egun artisautza munduan abangoardista izatea?

A.G.: Ideia eta produktu berriek ez dute berehalako emaitza ematen, apurka-apurka joaten dira txertatzen. Bestalde, nire kasuan, diseinu batzuk nireak dira eta beste batzuk bezeroek eskatutakoaren oinarrian garatuak. Ondoren, ideia horietako batzuek arrakasta izango dute edo bide bat egingo dute, eta beste batzuek ez, edozein ofiziotan moduan.

A.C.: Berrikuntzarako ahalmena edo berritzeko nahia artisau bakoitzaren araberakoa da. Zuraren kasuan, batzuk eroso sentitzen dira artisautza tradizionalean; argizaiolak edo kuxak egiten, esaterako. Niri probak egitea gustatzen zait; teknika berri bat ez bada, material edo diseinu berriak. Nik horrela ikusten dut nire ofizioa.

I.O.: Ideia edo produktu berri solteak baino, apurka-apurka ofizioa barneratzeak du benetako balioa. Dedikazioa eskaini, orduak eman eta ofizioa ulertu. Hori egin ondoren ikusten dut nik berrikuntzarako pausoa; bestela, urrats hutsalak dira, kanpotik zerbait dela diruditenak baina barrutik hutsik daudenak. Artisautzaren balioa urteetan garatu den jakintza zeure egitean dago, eta ondoren hori guztia zeure ideia berriei edo bezeroen eskakizunei aplikatzean. Ezin zara ofizio batean edozelan hasi.

“A.Conde: “Teknika, material, diseinu... berriak lantzen saiatzen naiz”

Galizia izango da herrialde gonbidatu Euskal Dendan ere

Euskal Liburu eta Disko Azokan Galiziako literatura erakutsiko duten moduan, Euskal Dendan toki bereko artisautza ezagutaraziko dute

Urtero herrialde berri bateko artisautza ezagutzeko aukera eskaintzen du Euskal Dendak. Aurten Galizian zer eta zelan egiten den bertatik bertara ikusi ahalgo da Merkatu Plazan, hangoak diren edo han bizi diren sei artisau etorriko dira-eta. Erakustaldiak egingo dituzte, eta euren lanekin osatuta egongo da sarrerako erakusketa.

Honako hauek dira Durangora etorriko diren artisauak: **Idoia Cuesta** (akhezita irabazi du artisautzaren ariketa nazionalerako berrikuntzen atalean), **Rosa Mendez** (beira lantzailea), **Nebra** (gaitak etazanfonak), **Sirves 31** (Soinu tresnak), **San-**

“Deitu genienean interesa agertu zuten, eta erraztasunak eman dizkigute”

Artisautza sariketa nazionalean akhezita irabazi duen Idoia Cuesta etorriko da

tin (larru lantzailea) eta **Cerámica Unzueta**. Bisitariek euren lan egiteko modua ikusiko dute, eta dudak argitzeko aukera ere eskainiko diete.

Iazko esperientzia

Iaz Kurdistan izan zen herrialde gonbidatua, eta bertako artisauak ekartzeko zailtasunak izan zituzten, munduko zonalde hartan bizi duten egoeragatik. “Ekimena ez zen guk itxaroten genuen moduan irten”. Aurten ez da horrelako arazorik egongo: “Galiziako artisau elkarteak deitu eta prestutasun osoa erakutsi ziguten. Egun bitan egin zituzten gestioak. “Esker oneko gaude”, dio Bernat Vidalek.



Harria lantzen

ARMARRIAK, BASERRI IZENAK, TAILA TRADIZIONALA, HILARRIAK

ORTZEKAUKO baserria
Murua, 19 Abadiño
946 202 000
bernatvidal.escultura@gmail.com

Bernat Vidal



Gipuzkoan azoka askotan parte hartu dut.

Gogoan duzu egindako zahato bereziren bat?

Badituz batzuk, bai. Munduan ez da herrialderik egongo nire zahato bat, gutxienez, ez dagoenik: Australia, Japon, Ameriketako Estatu Batuak, Hego Amerika... Berezien artean gogoan dut orain 30 bat urte, Gasteizko La Blancajaian, koadrila denek 14 litro eta handik gorako zahatoak era-



Azokek mantendu dute bizirik artisautza, eta batez ere Euskal Dendak



“Munduan ez da herrialderik nire zahatoaren bat ez dagoenik”

Mariano Santa Cruz 1938an jaio zen Gasteizen, eta ia bizi osoa botagile lanetan eman du; biharko ekitaldian bizi osoko dedikazioari eskainitako Artetsu Saria jasoko du

Nondik datorkizu botagile ofizioa?

Nire aitak 1939an zabaldu zuen Gasteizen bota edo zahato denda. Ni 11 urte gaz hasi nintzen aitagaz lanean. Geldirik egon ezin zen gaztetxo horietakoa nintzen, eta uste nuen eskolatik libratzeko modu egokia zela aitaren denda hastea. Baina ez! Aitak ez zuen nik ikasketak uzterik gura eta eskolara joatera behartu ninduen. Beraz, bietan jarraitu nuen: eskola eta aitaren denda. 15 bat

urtegaz hasi nintzen dedikazio handiagoan. Botagile lana ez da hiru hilean ikasten, denbora eskatzen du. Larrua prestatzeko edo hondatuta dagoena berrizteak, esaterako, bere teknika du, eta ikasketa prozesu bat eskatzen du ondo menperatu aurretik.

Zer larru erabili izan duzu?

Ahutzaren larrua. Horixe da balio duen bakarra. Behiarenak ez du balio, lodiera handia duelako. Ahutzarena ez da hain lodia eta



Apustuak egiteko 20 litroko zahatoa egin nion Tarragonako tabernari bati behin



benetan gogorra da. Bizirik 20 kilo pisatzen dituen ahutzaren larruaren ahalmena 100 litro ingurukoa da.

Botagile ofizioan margotzen ere jakin behar da, ezta?

Bai. Bezeroek zahatoak egiteko eskatu izan didatenean, eureka asko zahato pertsonalizatuak gura izan dituzte; Alavesen ezkutua gaz, adibidez. Pinturako nozioak ere behar dira.

Azoka askotan izan zara?

Hamaika azokatan! Eta harrigarria badirudi ere, Arabako azoketan ibili naiz gutxi, herri txikiak daudelako edo. Bizkaian eta



Arbasorentzako lana egiteak dedikazioa eskatu dit, baina gustura egin dut



maten zituztela. Gaur egun hori galdu egin da; garagardoa, kalimotxoa eta horrelakoak edaten dituzte, eta ez ardoa. Beste behin, Tarragonako tabernari batek 20 litroko zahatoa eskatu zidan. Ardoz bete eta apustuak egiteko gura zuen; nork dena edan, nor kantitate bat edan alkandorra zikindu barik...

Euskal Denda artisautzarentzat garrantzitsua da?

Duda barik. Artisautza azokek mantendu dute bizirik eta, batez ere, Euskal Dendak. Artisautzari balioa eman dio. Sarritan artisauen lanak ez dira baloratzen. Gure lan denak bakarrik dira; antzerako mila egiten ditugula bata bestearen atzetik? Sarritan bai, baina denak bakarrik dira.

Hamarkada batean Arbasoren ordezkaria izan zara Araban?

Dedikazioa eskatu izan dit, baina gustura egin dudana lana da. Batzarretara Durangoraino etorri, ekimenak prestatu... lan asko egin behar da. Hala ere, zera esan gura dut: beti lehenengo planoan lanean egon dena Bernat Vidal da. Nik eta beste askok ahal dugun denean lagundu diogu, bere aginduetara ibili gara. Oso gizon dinamikoa da, beti hamai-ka ideia ditu buruan bueltaka.

Artetsu Saria jasoko duzu...

Ilusio handiz jasoko dut, gainera. Bizi osoko lanari emandako sari bat jasotzea beti da pozgarria. Eskerrak eman gura dut.

Zapatuan Artetsu Sariak emango dira

Zapatuan, 19:30ean, Arbaso elkarteak Artetsu sariak banatuko ditu, San Agustin kultur gunean egingo duten ekitaldian. Aurten seigarren aldian egingo dute.

Bizi osoko lanari ematen dioten saria Mariano Santa Cruzek jasoko du. 73 urteko gasteiztar botagile jardun du ia bizitza osoan, eta hein handian botagile ofizioa berak mantendu du bizirik oraintsura arte.

Erakundeei zuzendutako saria Bediako Udalak jasoko du. Hango azokak “urte gogorak” igaro dituen arren azken urteetan biziberritzea lortu dute; “emaitza oso onekin, gainera”, Bernat Vidalen berbetan.

Hedabideen ataleko saria RNEko kazetari Mercedes Fernándezi emango diote. Joan zen udan Bizkaiko artisautzari buruzko “lan interesgarria” egin zuen, eta horregatik sarituko du Arbaso elkarteak.

Laugarren sari bat ere emango dute, baina ez dute sarituaren izenik jakinarazi oraindik: “Sorpresa bat izan dadin gura dugu”.

DESBERDINA DENA GUSTATZEN ZAIGULAKO
Bategin gurekin!!

EUSKAL HERRIKO ARTISAU ELKARTEA

306 posta-kutxa
48200 Durango
BULEGO OROKORRA
Muruetakalea, 19-1.a
48220 Abadiño
Tel.: 94 620 20 00
e-posta: artisautza@arbaso.com
www.arbaso.com

Eneko Unzu
bitxiak

Ambrosio Meabe, 6 beheak
Tel.: 653 712 498
www.enekounzalu.com

NK Bitxigintza

Nekane Aira
Zumalakarregi 20-4B
48200 Durango Bizkaia
Tel.: 661 332 446
nkjoyeria@yahoo.es

INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garaje aeta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare-kin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

BASERRIAK SALGAI

BERRIZ

- MURGOITIO n kokatuta dagoen baserria salgai.Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politik.

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserria salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzola-ko kobetatik gertu.
- Baserria salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

OLETA

- Bi pisuko txaleta. Egongela-jangela, bulegoa, 3 logela eta komuna. Garajea eta trastelekua. Oilategia. 3.000 m2-ko lursaila.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- SEI ADOSATU ERAIKITZEN. 298.000€-tik aurrera.
- Guztiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA: Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreinatzeko. Leku ezin hobean.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

MATIENA-ABADIÑO

- 40 m2-tik hasita. Instalazio guztiekin. Komunak. Leku ezin hobea.

DURANGO

- Erdialdean kokatuta dagoen 85 m2-ko bulegoa. Instalazio guztiekin.

LONJAK ALOKAIRUAN

DURANGO

- DURANGO: Alde zaharrean. Hainbat gainazal. Komertziorako aproposak. Prezio interesgarriak.
- Lokal komertzialetan hainbat aukera eskaintzen ditugu. Zatoz gure bulegora eta erakutsiko dizkizugu.



Fernando Uribe

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
- OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak. ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
- ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxoa, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentza-ko garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MARTXOAREN 8ª: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiekin.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-ITURRITXO: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Trastelekua eta garajea.




Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- MARTXOAREN 8KO: AZKENEKO etxebizitza estreinatzeko, beherapen handiagaz obrak likidatzeko. 2 logela. Garaje itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 301.979 € + bez. Garajea eta ganbara.
- HERRIKO GUDARIEN: 140 m2. 3 edo 2 logela. 3 terraza. 2 komun. Garajea. Azkeneko solairua. Eguzkitsua. Ikuspegi politik.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbararekin 185.000€ + BEZ
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + BEZ
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + BEZ
- ASKATASUN ETORBIDEA: 115 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 95 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- IPARRAGIRRE: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Berriztatua.
- PLATERUEN PLAZA: 97 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ANDRA MARI: 180 m2. 4 logela, 2 komun, bainugela, sukaldea eta jangela. Ganbara eta garajea.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. 2 logelako atikoa, egongela, sukalde jantzia, 2 komun. 20 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- MURUETA TORRE: 91 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.
- MIKELDI: 101 m2. 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Guztiz berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- FRANTZISKO IBARRA: 105 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea aukeran.
- SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Balkoia. Ikuspegi politik. Eguzkitsua.
- SASIKOA: 70 m2. Aukerakoa! 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia.
- ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garaje itxia aukeran.
- ALLUITZ-FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Garaje itxia.
- TXIBITENA: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- TXIBITENA: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- SAN FRANZISKO: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. IKUSPEGI POLITAK.
- ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua.
- KOMENTU KALEA: Azkeneko solairua. Ikuspegi politik eta eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
- KOMENTU KALEA: 4 logelako etxebizitza, egongela handia, sukaldea eta komuna. Ganbara.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- FRAY JUAN de ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, sukaldea eta egongela handiak. 204.350€.
- LANDAKO: Guztiz jantzita dagoen apartamentua. 2 terraza. Ikuspegiak. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. 216.000€.
- ERRETENTXU:(San Franzisko). 3 logela, egongela-jangela. Jantzia. Ganbara. POLITA. 210.350€.
- INTXAURRONDO: 75 m2. 2 logela eta 2 komun. 27 m2-ko ganbara. Garaje itxia. Terraza. Eguzkitsua. 260.000€.

ALOKAIRUAN

- DURANGO: Madalena. Lokala. 800€.
- F.J de ZUMARRAGA: 110 m2. Lokala. AUKERA.
- SAN IGNAZIO: Salgai edo alokairuan erosteko aukerarekin. Atikoa 80 m2-ko terrazarekin.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- MAÑARIA: BERRIAK. 189.500€-tik aurrera.
- DANTZARI: 3 logela. Jantzia. 180.000€.
- MIKELDI: 95 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta jangela-egongela. 2 terraza. Eguzkitsua. 225.000€.
- FRANZISKO IBARRA: 100 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela handia. Ganbara eta garaje itxia. Eguzkitsua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 124 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- ETXEBIZITZA IGERILEKUAREKIN: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
- MURUETA TORRE: 3 logela. Terraza handia. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du.
- OIZ: 3 logela eta egongela. 2 terraza. Igogailua.
- OÑITURRI: 80 m2. Ganbara eta garajea.
- HERRIKO GUDARIEN: Pisu altua. 110 m2. 3 logela, 2 komun, egongela terrazarekin eta eskegitokia. Ganbara eta garajea.
- ANTZO EZTEGIZ: 120 m2. 4 logela eta 3 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea. ARGITSUA.
- ERROTARITXUENA: ESTREINATZEKO. ATIKOA. 40 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZEHARKALEA: 70 m2. 3 logela. 198.300€.
- MIKELDI: 105 m2. 3 logela, egongela eta sukalde-jangela. 2 terraza. Igogailua. BERRIZTATUA.
- MADALENOSTE: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdi berria.
- SASIKOA: 70 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- TABIRA: 4 logela. 2 terraza. Igogailua. Berogailua. Ikuspegi politik.
- EZKURDI: 138 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Berogailua. Igogailua. Ikuspegiak. 342.600€.
- ZUMARPARKEA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
- EZKURDI: 70 m2. 1.go solairua. 180.000€.
- ALLUITZ: 2 logela eta sukalde-egongela. Eguzki-tsua. Ganbara. Garaje itxia.
- PLATERUEN PLAZA: 105 m2. 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- MATIENA: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. 14 m2-ko ganbara.
- MATIENA: Solaguren. 2 logela eta egongela. 150.000€.

BESTE ZONALDE BATZUK

- GARAI: Unifamiliarra. 2.900 m2-ko lursailarekin.
- IURRETA: Bixente Kapanaga: 2 logela, egongela eta sukalde-jangela. Igogailua. Berria. 210.000€.
- IURRETA: Zubiaurre. 2 logela. Igogailua. Polit.
- 213.400€.
- MASPE: 3 logela, sukaldea eta egongela. Igogailua.
- MAÑARIA: ESTREINATZEKO. 3 logela, sukalde jantzia eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 252.000€.
- MAÑARIA: 110 m2. 3 logela. Jantzia. Terraza. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. 200.000€.
- ATXONDO: Landa etxea. 100 m2-ko lorategia.
- BERRIZ: 75 m2. 2 logela. BERRIZTATUA. Polit.
- BERRIZ: 2 etxebizitza. 260 m2. Igogailua. Terraza eta 700 m2-ko lursaila.
- BERRIZ: Murgotioi: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 239.800€.
- ZORNOTZA: ESTREINATZEKO. 3 logela. Terraza. Eskegitokia. Trastelekua eta garajea. 205.000€.
- ZALDIBAR: DUPLEXA. Estreinatzeko. Apartalekua-rekin. 100 m2. 160.460€.



‘Udaberririk ankerrena’: Gerra eta gerraosteko historia komiki batean

Durango 1936 kultur elkartearen proposamenez, Unai Iturriagak idatzi du *Udaberririk ankerrena* komikiaren gidoia, Alex San Vicente izan da marrazkigilea eta Elkarrek eman du argitara. Gerra Zibilaren eta frankismoaren eraginak gazteei helaraztea du lanak helburu.



Sasoari buruzko dokumentazioa Gerediaga elkarteak eskura ipini diola azaldu du Iturriaga gidoigileak, eta “Jon Irazabal eta Epi Garciak dokumentazio lanagaz lagundu izana” eskertu du.

“Gerraostea ez zela gozoagoa izan gura izan dut islatu”, dio Unai Iturriagak

Aurretik Xabiroi aldizkaria-ko jardun izan dute Iturriagak eta Alex San Vicente marrazkilariak elkarlanean, baina umorez kasu horretan. Honetan, oso bestelakoa da kontatzeko izan duten istorioa. Marrazkilariak azpimarratu duenez, “urte haietako giroa transmititu gura izan dugu: tonua aukeratzea izan da gaitzena”.

Unai Iturriagaren gidoia “oso teknikoa da”, azaldu du San Vicente marrazkigileak: “Bere irudiak dauzka buruan, eta asko errazten du horrek nire lana”. Gidoia eskuartean edukita, “Unai transmititu gura zuena marrazteari” ekin zion San Vicentek.

Gerra Zibilaren memoria historikoa gordetzearen garrantzia gazteei helarazteko bitarteko moduan komikia aukeratu du aurtengo Durango 1936 kultur elkarteak.

Eguaztenean, Plateruenean aurkeztu zuten Unai Iturriagaren gidoiagaz eta Alex San Vicentere marrazkiekin Elkarrek argitaratu duen *Udaberririk ankerrena*. Memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduen Durangoko elkarteak Maria Gonzalezek aurkezpenean azpimarratu zuenez, “gazteei begira, istorio hau plazaratzeko formatu iritzi diogu komikiari”.

Komikia gazteei baina baita gazteak ez direnei ere zuzenduta dagoela azpimarratu dute Plateruenean aurkezpenean.

Unai Iturriaga gidoigilea, Alex San Vicente marrazkilaria, Elkar

M. Gonzalez:
“Gazteei begira, komikia oso egokia dela uste dugu”

Mari eta Martin neska-mutilen begietatik kontatu du Iturriagak istorioa

argitaletxeko Xabier Mendiguren, eta Durango 1936 elkarteak Maria Gonzalez batu ziren Plateruenean aurkezpenean.

Tropa faxistak Intxortako frontearen kontrako azkeneko erasoaldiari ekitear direla, 1937ko udaberrian, aititagaz Durangora bidean doazen Mari eta Martin neska-mutikoak dira *Udaberririk ankerrena* laneko protagonista.

Martxoaren 31ko Elorrio eta Durangoren kontrako bonbardaketen lekuko izango dira Mari eta Martin, eta ondorengo “mendeku, umiliazio, erbestealdi luze eta abarren” testigu eta biktima.

Durangoko Elkarteak egin dako proposamena “hasieratik poz handiz hartu” zuela azaldu du Iturriagak. Gerra bonbardaketetara murriztu barik, besteak beste, “gerraostea ez zela gozoagoa izan, eta galtzaileen ban-

doan egoteak zer suposatzen zuen” ume biren begietatik kontatu du *Udaberririk ankerrena* honetan Iturriagak: “Hori dena sartu gura izan dut istorio honetan”, dio Iturriagak, eta 38 orriko lana da emaitza.



“GAURSAAn erositako ibilgailua benetako kide bat bezala izango da zuretzat.

Eta hitza betetzen ez badut, ni arduratuko naiz urte guztian zehar goiz jaiki eta zure negozioarako erosketak egiteaz.”

Andonik esana



Andoni Baños,
Gaurako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna

**RENAULT
OCASIÓN**

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.
GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.

www.gaursaautoak.com



“Animazioko lana izan arren, sinesgarritasuna lortzen saiatu gara”

Ikusle askoren berbatan, “istorio gogorra, hunkigarria” da Edorta Barruetabeñak eta Asisko Urmenetak idatzi duten *Gartxot, konkista aitzineko konkista* animaziozko filmak kontatzen duena. Durangoko Azokan aurkeztuko dute Elkar argitaletxeagaz kaleratu duten izen bereko liburua



Zelan sortu da proiektua?

Asisko Urmenetaren komikian oinarrituta, 2008an eman genituen lehenengo pausoak. Film labur bat egitea pentsatu genuen lehenengo. Bidean konturatu ginen filmaren oinarrian dagoen Campionen narrazioak gauza askori buruzko pistak ematen zituela.

Film laburra bukatu eta luzeari ekin zenioten, beraz?

Esperimentaziorako aukera izan zen laburra, baina laster konturatu ginen film luze bat edo gehiago egiteko materiala baze-goela. Campionez ez zituen kasualitatez aukeratu 1110 urtea eta kokapena: Orreaga. Gauza asko, oso inportanteak kontatzen ditu Campionek. Film laburra egin genbiltzala konturatu ginen gure helburua luzea egitea izan behar zela.

Hasieratik izan da animaziozko lana?

Bai, izan ere, hau beste era batean egitea oso gaitza da AEBetakoak lako aurrekonturik ez badarabilzu: sinegarritasuna izango duen Erdi Aroari buruzko film bat irudi errealagaz egitea oso zaila da.

Zein da filmeko argumentua?

Bi osagai dauzka filmak: Gartxoten kondaira, eta Campionez hura testuinguru erreal batean kokatuz 1917an burutu zuen narrazioa. Asmatutako pertsonaia da



Adin guztietakoentzat kalifikatu dute, baina helduentzako filma dela uste dugu: gogorra da



Gartxot, baina testuingurua erreala da. Gartxoten bidez, gure herriaren, Nafarroaren, konkista kontatzen du *Itzaltzuko Bardoa* lanean Arturo Campionez: lehenengo gurutzaadaren osteko deskulturalizazio saiakera. Eta konkiskataren aurkako ikur bilakatu da horrela Gartxot.



Zelako harrera izan du lanak?

Oso pozik gaude emaitzagaz, nahiz eta ez den pelikula erraza. Helduentzako lana dela azpimarratu gura genuke. Publiko guztientzako kalifikatu dute, baina helduentzako filma da: istorio gogorra da.

Soinua, musika eta hizkera bereziki landu dituzue filmean.

Film laburra egiten hasi aurretik, lehenengo egin genuen lana Benito Lertxundirengana joatea izan zen: berak landuta zeukalako gaia, eta Gartxotek bere ahotza edukitzea pentsatu genuelako. Azkenean berak konbentzitu gintuen Mixel Etxekoparren ahotza zela aproposagoa, baina proiektuan oso inplikaturik egon da Lertxundi ere: *Itzaltzuko Bardoa* disko-ko kantak moldatu ditu filmerako.

Animaziozko lana izan arren, hainbat elementu erreal darabilzue.

Bai. Dokumentazio lan ikaragarria egin dugu: dekorazio lanak egin dituztenak hainbat aldiz ibili dira Orreaga inguruan, eta hizkeraren inguruan ere lagundu digute. Nahiz eta karikaturak izan, ahalegindu gara sinesgarritasuna bilatzen, bai janzkeretan, bai etxeetan, bai merkatuetan agertzen diren objektuetan, etab. Dokumentazio lan horretan jasotako guztia pelikulan sartzerik ez zegoenez, liburua kaleratzea eskaini genion Elkarri.

Zelan egin duzue lan: asko joan zarete Orreagara?

Urtero joaten gara Itzaltzun antolatzen duten Gartxot Ekimenara, eta harreman oso estua daukagu bertakoekin. Euren animoei eskerrak egin dugu prozesuko parte gogorrenetan aurrera.

Zein izan da proiektuaren parterik atseginena?

Harremanekin zerikusia daukan guztia: Benito Lertxundi eta Olatz Zugatzigaz filmak transmititu behar zuenari buruz eta Campionen lanari buruz eduki ditugun eztabaida filosofikoak, itzaltzuarrekin daukagun hartu-emana...

Zer antolatu duzue abenduaren 4ko Platerueneko Gartxot Egunerako?

Filmean parte hartu duten lagun kantarien emanaldia egongo da, 13:00etan, eta kontzertu berezia eskainiko du Kero-bia talde nafarrak gauean: filmeko irudiak eta euren musika uztartuko dituzte, eta *Itzaltzuko Bardoa* kanta ere eskainiko dute.

10 urte bete dituen Euskal Wikipedia bultzatzen

Euskal Wikipediaren hamargarren urterenaren harira, edizio maratoni bat proposatuko dute Gerediaga elkarteak, Ixa Taldeak eta Euskal Wikipediak, Durangoko Azokan, elkarlanean. Askok kontsultatzen dugu Wikipedia, baina gutxiago dira aktiboki parte hartzen dutenak, eta hain zuzen horretarako aukera da abenduaren 6koa: edukiak editatzeko pausoa ematea. Edizio maratoniaren parte hartzea da Azokako bisitariei luzatuko dieten proposamena.

Gorka Julio: “Euskal Wikipediako jendea oso aktiboa da, eta zoriontzekoa da hori”

Wikipediaren funtzionamenduari buruz informazio orokorra emateko, Euskal Wikipediaren hamar urteotako ibilbideaz informatzeko eta itzulpen automatikoa erabiliz wikipediako artikulua zelan sortu daitezkeen azaltzeko, hitzaldiak eskainiko dituzte lehengo. Unai Fernandez de Betoño, Kepa Sarasola, Galder Gonzalez eta Gorka Labaka hizlarien eta Wikipediako kideen laguntzagaz, artikulua editatu ahal izatea da ondoren proposatuko dutena. Nahi duenak bere ordenagailu eraman-garriagaz jardun ahalko du, eta bertan ere ipiniko dituzte ordenagailuak erabilgarri. Wikipediako auzolanean parte aktibo bilakatzeke aukera eskainiko dute.

“Garrantzia handiko gauza da denon ekarpenekin Euskal Wikipedia ahal beste zabaltzea”, dio Gorka Julio kideak: “Hor daude emaitzak, eta egia da artikulua asko sortu direla azken urteotan”. Wikipediaren baitan, portzentuak eta beste herrialde batzuekin konparatuz gero, “Euskal Wikipediako jendea oso aktiboa da, eta zoriontzekoa da hori”, dio Juliok. Hala ere, hezkuntza arloko, zein arlo zientifiko, tekniko eta artistikoko jendearen parte hartzea sustatu gura dute.



Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Eta honako Udalak:



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



durangaldeko astekaria

2011ko abenduaren 2a
10. urtea - 439 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenebxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Goretti Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzaileak:

Igor Elortza.

Argazkilariak:

Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

baske pensiones

e.p.s.v.

Inurriaren ametsak
1. ATALA:

**“Errentagarritasun ona
duen baskepensiones
plan bermatua”.**

**+BBK gordailua
%4raino
urte 1era**

Plan bermatuaren
+ BBK gordailuaren
UTB bateratua: %3,57

**%3,57
UTB
2017-09-28an**

**baskepensiones
bermatua 13 plan
berria**

%3,5 UTB 2017-09-28an
(%21,72ko errebalorizazioa).
BBK-k eskainitako bermearen
epealdia 2012-01-13tik
2017-09-28ra.

901335566
bbk.es

**Hemen
gaitu-
zu**

bbk

Bilbao Bizkaia Kutxa, Bazkide Babesle
Sortzailea eta Ondare Kudeatzailea

Bittor Kapanaga gogoan izango du Durangoko Azokak aurten

Uztailean hil zen ikerlari, idazle eta euskaltzaleari omenaldia egingo diote, abenduaren 8an, otxandiarra gertutik ezagutu zutenen eskutik

Bagare, bagera, bagire, bagara... berba horrexek aukeratu ditu Gerediaga elkarteak Bittor Kapanagari Durangoko Azokan egingo dioten omen-ekitaldirako. Berak sortu eta Gontzal Mendibilek fama- tu egindako kanta ezagunaren hitzak. Ikerlari, idazle eta euskaltzale otxandiarra uztailean hil

Omen ekitaldia
Aretoan izango
da, 13:00etan

zen, 85 urte zituela. Abenduaren 8an, haren lanaren eta pertsonaren inguruko gogoeta egingo dute Durangoko Azokako Aretoan. Gertutik ezagutu zuten idazle, musikari eta bertsolariek parte hartuko dute, 13:00etan hasiko den ekitaldian.

Euskara eta euskal mitologiaren ikertzaile izan zenaren argazkiak erakutsiko dituzte. Berak sortutako hitzak dituzten kantak ere abestuko dituzte, eta haren hainbat testu irakurri. Gerediaga elkarteak kide zen Kapanaga, eta ia sorreratik zuzendaritzan egondakoa urte askoan.


Idazle eta euskaltzale
Eibarren (Gipuzkoa) industria-

maisur ikasketak egin zituen, eta orduan hasi zen gerraosteko euskal mugimenduan, beste hainbat euskaltzalegarekin batera. 1953an *Euzko Gogo* aldizkarian hasi zen idazten; geroago, *Zeruko Argia*-n, baita beste aldizkari eta argitalpen batzuetan ere. 1978an, *Euskera*, erro eta gara liburua argitaratu zuen, euskararen erroetan arakatuz; oihartzun handia izan zuen liburu horrek.

Olentzaro argitaletxean argitaratu zituen gainerako lanak. Berba hori berreskuratzeko ahalegin handia egin zuen bere idazkietan. Bereak dira *Badator Olentzaro*; *Olentzaro: sua hilda*; *Olentzaroren aurpegiak*; *Olentzaroren lagunak*; eta, *Oxinondoko gertaerak*. Denak 1995ean kaleratuak.

Argizaiola jaso zuen
1997an, urteetako
lanaren ohoretan

Herri ohiturak batzen, herri kulturgintza sustatzen eta euskararen alde egindako lana eskertzeko Argizaiola saria ere eman zion Gerediagak 1997ko Durangoko Azokan.



Unean bertan eta denen artean asmatutako ipuina Ander Lipusek kontatuta

Hamaika proposamenen hari muturrak batzea izango da Ander Lipusen zeregina ipuin kontaketa inprobisatu eta interaktiboan

Oraindik ez da existitzen, inork ez daki zer traza izango duen ere, baina ipuin berri bat jaiotzear dago. Irudimena izango du sorburu, eta erditze prozesuan parte hartzeko prest dauden denak egile; sormen lana inprobisatua izango da, unean bertan egingo dena.

Ekimena Kabi@ gunean egingo du, eta ekarpenak egiteko hau da etiketa: **#FilmEsaldia**

Ander Lipusek abenduaren 5ean, 11:00etan eta 19:00etan, gauzatuko duen ekimen bati buruz gabilta. Berriz bizi den aktoreak Azokara datozen bisitarien laguntzagaz eta sare sozialen bitartez jarraituko dutenekin ipuin inprobisatua eta interaktiboa sortuko du.

Twitterrean etiketa bat sortu dute horretarako, eta gura duenak etiketa horren bitartez egin diezaiokete ipuinari bere ekarpena: **#FilmEsaldia**.

Hori guztia aurten lehenengoz antolatu duten Kabi@ izeneko gune berrian izango da. Gune horren helburua sareko eta euskarri teknologiko berrietako ekimenak jasotzea da.



XXI. mendeko txistua zuzenean eskainiko du Silboberri elkarteak

Astelehenean izango da emanaldia, 20:30ean, San Agustinen; txistua, akordeoia eta elektroakustika nahastuko dituzte

Silboberri txistu elkarteak, argitalpenez gainera, zuzeneko emanaldia ere eskainiko du Durangoko Azokaren baitan. Abenduaren 5ean izango da San Agustín kultur gunean, 20:30ean hasita. Sarre- ra doan dela, txistuzaleek kontzertu berezia izango dute ikusgai.

Txistulari lanetan Aitor Amilibia, Sergio Torices eta Iñaki Martin ariko dira astelehenean

Ziriketa II, A través de un sueño, Honai, Bat gehi bat, bi?, Zargan eta Danbor piezak joko dituzte egitarauan, azaldu dutenez. Txistulari lanetan Aitor Amilibiak, Sergio Toricesek eta Iñaki Martinek jardungo dute, soinuak Jose Antonio Hontoriak, eta soinu teknikari legez Josean Rosek eta Mikel Chamizok.

Txistua eta akordeoia zuzenean, danbolina, danborrak eta elektroakustika erabiliko dituzte piezak egituratzeko. Abestiaren arabera, aldi bakoitzeko tresna zehatzak hartuko dituzte.

Kontzertura hurreratzen diren artean Gabonetako otzara bi zotz egingo dituzte, gainera.



'Aizkora hotsak goi mendietan' Bideografikek Pakistanen grabatutako dokumentala ikusgai


Bideografik ekoiztetxeko kideek Alex Txikon, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta Xabier Errogaz egindako bidaia kontatzen dute dokumentalean

Hainbat helburu izan dituen bidaia batetik sortutakoa da 'Aizkora hotsak goi mendietan' dokumentala. Alex Txikon mendizaleak G-1, G-2 eta K-2 mendiak bi hilabetetan igotzea izango du jomuga. Bidean, beste erronka batzuk tartekatzen joateak ikus-entzunezkoa antolatzeke osagaiak eman dizkio Bideografik ekoiztetxearen proiektuari.

Bai Austrian bai Pakistanen hainbat aizkora erakustaldi eskaini zituzten

Pakistanera zortzimilakoen bila egindako bidaia *road movie* moduan planteatu dute egileek. Autoan Europa guztia zeharkatu eta Turkiatik Iran eta Pakistan gurutzatuko dituzte, helmugara heltzeko: Felix Baltistan Fundazioa Skardu herrian, Karakorumen erdigunean. Bidaiarako erabili zuten autoa bertan utzi zuten fundazioaren arduradunentzat.

Ibilbide horretan Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariak eta Alex Txikon mendizaleak Austrian eta Pakistanen eskaini zituzten aizkora-erakustaldiak azaltzen ditu estreinatuko duten dokumentalak.



Bideografik ekoiztetxeko David Maeztuk eta Eukeni Arriortuak kamerak eta enparauak prestatu eta hiru protagonisten hile eta erdiko bidaia egin zuten, uztailan, dokumentala grabatzeko. "Esperientzia oso aberasgarria izan da, hainbat herrialde ezagutzeko aukera izan dugulako", azaldu digute. Proiektu horrek alde gogorra ere izan

duela diote kameralariak: "Egun gutxitan kilometro asko egin genituen kotxez, eta ondoren mendira igotzeko egunak etorri ziren". Hala ere, zortzimilakoen kanpaleku basera joan eta bertatik bertara mendi horiek ezagutzeko ametsa egi bihurtu dela azaldu digute. Jose Carlos Tamayo eta Juanra Madariaga mendizaleekin Karakorumen elkartu ziren ondoren, G-1 mendia igo baitzuten Txikoneguz.



Alex Txikonen erronka G-1, G-2 eta K-2 zortzimilakoak bi hilean igotzea izan da

Carlos Iglesiasek gidoia idatzi du, Gari Bragado euskara aholkularia izan da eta Xabi Zabala A. edizio eta post-produkzio arduraduna. Mikel Nuñez durangarrak jatorrizko musika egin du, eta Xabier Agirrek, berri, audio post-produkzioan jardun du.

Estreinaldia

San Agustin kultur gunean
Abenduaren 8an, 20:30ean



Dokumentala Mendifilm jaialdian aurkeztuko dute

Aizkora hotsak goi mendietan ikus-entzunezkoa mendi zinemako IV. Nazioarteko Mendifilm jaialdiaren sail ofizialean lehiatuko da Gasteizen. Abenduaren 18an aurkeztuko dute, 20:30ean, Europa jauregian.

Laugarren aldiz aurkeztuko dira jaialdian. Iaz, Bideografikek euskarazko lan onenaren saria eskuratu zuen *Tamur*

Kangchenjungako harribitxia dokumentalagaz. Nepalera Txus Ruiz de Erentxun kaiakista durangarragaz egindako bidaia ardatz hartuta egin zuten lan hura ere Azokan aurkeztu zuten. Aurtengo jaialdian aurrekoetan baino lan gehiago egongo dira lehiatzen, eta antolatzaileen esanetan "kalitate hobea dute". Aurretik, *Psicobloc: ur*

sakonetako bakardadea Patxi Usobiaga eta Irati Anda eskalatzaileekin Mallorkan grabatutakoa eta *Slack line: grabitateari erronka* lanak aurkeztu zituzten. Lan guztiek ezaugarri bera dute: muturreko kirola edo abentura-kirola. Baina, Pakistanera egindako bidaia honetan, elementu hori bigarren mailan gelditu da eta beste batzuei utzi die lekua: pertsonen hartu-emanak lantzea, helburu solidario bat betetzea, euskal kultura zabaltzea eta beste herrialde batzuk ezagutzea.

Z&R MODA

Kalitaterik onena preziorik onenean - Behar duzun guztia zure eskuetan

Astarloa 9 - Durango - Tel.: 94 657 09 73

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

Egunero 19 zuzeneko, goiz eta arratsaldez, Ahotsenean gunean

Durangoko Liburu eta Disko Azokako egun guztietan, goizeko 10:30ean hasita 20:00ak ingurura arte, bata bestearen ostean, ia 20 zuzeneko musika emanaldi edo errezitaldi hartuko ditu Ahotseneak. Laugarren urtea du aurtengoa, eta hazi eta hazi doa gunea



Irail erdialdean, www.ahotsenean.net helbidean eskainizuten Durangoko 46. Liburu eta Disko Azokaren harira antolatutako Ahotseneako emanaldietan parte hartzeko izena emateko aukera. Irailean zabaldu zieten euskarazko literatura eta musika sortzaileei Ahotsenean euren lana eskaini ahal izateko izena emateko aukera, beraz, eta azaro erdialderako lau egunetarako tarte guztiak beteta zeuzkaten.

Durangoko Azokak irauten duen bost egunetan, idazleen ahotiko liburu aurkezpen eta errezitaldiek eta talde zein bakar-larien zuzeneko musika emanaldiak beteko dute Ahotsenean: 19 emanaldi izango dira egunero, eta 350 sortzaile baino gehiago igaroko dira oholtzatik.

Landako erakustazokaren aldamenen egongo da, iazko moduan, euskal literatura eta musika sortzaileen etxea.

Aurkezpen-solasaldiak (errezitaldiak) eta zuzeneko musika emanaldiak tartekatu egingo dituzte aurtan, eta Ahotseneako kazetari baten laguntzagaz burutuko dituzte aurkezpenak.

Lana euskarazkoa eta 2011 urtean zehar argitaratutakoa izatea izan dira Ahotsenean parte hartu ahal izateko baldintzak.

www.ahotsenean.net helbidean, zuzenean emango dituzte gune horretan gertatzen dire-


nak, erakustazokan eta Platerue-
nean ipiniko dituzten pantailen bitartez ere jarraitu ahal izango dira emanaldiak zuzenean, eta baita www.durangokoazoka.com edo www.musikazuzenean.com webguneetan ere.

Ordu erdiro euskal sortzaileen proposamen berri bat izango da Ahotsenean aukeran: bost egunean 95 aurkezpen egingo dituzte, eta 350etik gora sortzaile igaroko dira bertatik.

Lana euskarazkoa
eta 2011n zehar
argitaratua izatea
da baldintza bakarra

“Musikariak eta idazleak publikoagaz hartu-eman zuzenean egoten dira”

Landako erakustazoka aldameneko karpan ipiniko dute laugarren urtez Ahotsenean gunea. **Gotzon Barandiaran** arduradunak jardun du proiektuaz



Zelako balorazioa egiten duzue orain artekoaz?

Oso positiboa; lehenengo urtean egun erdiz egon zen Ahotsenean martxan, bigarren urtean hiru egunetan, iaz lau egunetan eta aurtan bost egunetan. Azokak bost egun badauzka, bostetan zabalduko ditugu ateak.

Denbora gutxian asko finkatu da proiektua.

Bai. Eta hasieran finkatu genituen helburuak betetzen gabiltzala uste dugu: euskarazko musika eta literatura Azokan galtzen joan den espazioa eta garrantzia berreskuratzea, bate-tik, eta Azoka produktuen erakusle-
ho izateko arriskutik aldentzea, bestetik. Musikariak eta idazleak publikoarekin hartu-eman zuzenean ipini ditugu.

Zelan erantzuten diote Ahotseneari sortzaileek?

Sortzaile batzuen gogoetatik sortu zen hau. Tabernako gogotak burutu ditugu horri buruz

urteetan, eta gauzatu egin zen proiektua: gogoeta horiek behin, birritan, hirutan egin ostean pentsatu genuen teoriatik praktikara salto egin behar genuela, eta Gerediaga elkartekoei azaldu genien gure asmo hau. Lehenengo urtean egin genuen argazki hartan ikusi zen, ia derri-gorrezko ikusten zutela Ahotsenean lako egitasmo bat egotea Durangoko Liburu eta Disko Azokan. Sortzaileek euren plazar-tzat daukate Ahotsenean.



Gure susmoa da
aurten ere txiki
geratuko zaigula
Ahotseneako karpa



Publikoaren harrera ere urtez urte beroagoa da?

Ikusiko dugu, baina gure susmoa da, ez aurkezpen guztietan, baina txiki geratuko zaigula Landako erakustazoka aldameneko karpa aurtan. Iaz hainbat aldiz geratu zitzaigun txiki, eta horrek esan gura du euskaldunak gosea daukala jakiteko zer musika eta zer literatura dagoen. Ikusita zer liburu eta zer disko aurkeztuko diren, gure aurreikuspena da jendeak berriz ere ondo erantzungo duela.

Zer erronka daukazue datoren urteetarako?

Ahotsenean eta Berbarok 20 urtez kudeatu duen Haur Literatura Aretoaz aparte beste hiru gune berri daude. Ez Ahotseneako bakarrik, Azokaren erronka da disko eta liburu denda bilakatu barik, euskal kulturaren azoka bihurtzea. Eta uste dugu bide horretan goazela. Ahotsenearen erronkak, bestalde, espazioa eta azpiegitura hobetzea, hurbiltzen denari ikusten dabilenaren gaineko informazio gehiago ematea... izan daitezke. Gerediagagaz gogoetan dihardugu, bestalde, azoka Durangotik haratago eta urte osoan zehar ere zabaltzeko.

Zertan datza gogoeta hori?

Euskal kulturaren azoka ez izatea abenduko zubi honetan bakarrik, baizik Euskal Herri eta urte osoan zehar. Denon erronka da euskal kulturari zabalpen handiagoa ematea, euskaldunon artean ere ezagutaraztea, gure gabeziak bat baita euskaldunok sarritan ez dugula gure kultura ezagutzen, eta kanpoko kulturaren gehiegizko emariari ezin diogula erantzun. Gerora, sortzaileek, norantza jo gura dugun pentsatuko dugu: dena joan behar da gogoeta berean. Ordua da batu gaitezen adierazpide guztietako euskal sortzaileak, gogoeta sakon bat egin behar dugulako etorkizun hurbilari buruzkoa.

ahotsenearegitaraua

ABENDUAK 4

- 10:30 Aurkezpena
- 11:00 Izate-Negu hotzak (zuzenekoak)
- 11:30 Alberdania-Erein (Batera saileko liburuak)
- 12:00 Yolanda Arrieta (zuzenekoak)
- 12:30 Xabier Mendiguren Elizegi, *Sakoneta* (aurkezpen-solasaldia)
- 13:00 Pako Sudupe (aurkezpen-solasaldia)
- 13:30 Leire Bilbao, *Scanner* poesia liburuaz (zuzenekoak)
- 14:00 Fernando Morillo (solasaldia)
- 14:30 Igor Arzuaga & Luis Vil (zuzenekoak)
- 15:00 Leihotikan (zuzenekoak)
- 15:30 Napoka Iria (zuzenekoak)
- 16:00 Asisko Urmeneta, Mattin Irigoyen eta Adur Larrea (aurkezpen-solasaldia)
- 16:30 Ain 1, *Muxika kaxa* (zuzenekoak)
- 17:00 Iñigo Aranbarri, *Zamaontzia* (aurkezpena)
- 17:30 Xarma, *Karenka* (zuzenekoak)
- 18:00 Xarma + Bide Ertzean (*Gerrako ipuinak* liburuaren eta *Noiz arte justiziarik gabe* CDaren aurkezpena)
- 18:30 Siroka (zuzenekoak)
- 19:00 Ruper Ordorika, *Hodeien azpian* (aurkezpen-solasaldia)
- 19:30 Jare, *Itxaropenaren ertzean* (zuzenekoak)

ABENDUAK 5

- 10:30 *Euskaraz bizi nahi dut* (aurkezpena)
- 11:00 *Entzun!* diska-liburua eta atari berria (aurkezpena)
- 11:30 *Ze esatek* DVDaren aurkezpena (zuzenekoak)
- 12:00 Gerardo Markuleta (aurkezpena)
- 12:30 Denonartean liburuak (Aurkezpen-solasaldia)
- 13:00 Xabier Artola *Argi itzalen neurria* (aurkezpena)
- 13:30 Solte (zuzenekoak)
- 14:00 *Haladzipo*, (aurkezpena)
- 14:30 Parradust Ceol Project (zuzenekoak)
- 15:00 Daniel Landart, *Aihen ahula* (aurkezpena)
- 15:30 The Sparteens, *Bi doberman beltz* (zuzenekoak)
- 16:00 Joseba Azkarraga (aurkezpena)
- 16:30 Fiacrhas (zuzenekoak)
- 17:00 Oihana Esquirol Picabea (aurkezpena)
- 17:30 Petti eta Xabi (zuzenekoak)
- 18:00 Gaizka Zabarte, *Zaharrak ez zuen hil nahi* (aurkezpena)
- 18:30 Markos Untzeta (zuzenekoak)
- 19:00 *Azaletatik sustraietara* (aurkezpena)
- 19:30 Patta eta sendaezinak (zuzenekoak)

ABENDUAK 6

- 10:30 Kepa Larrea (aurkezpena)
- 11:00 Lain, *Leihoak* (zuzenekoak)
- 11:30 Martin Etxeberria, *Zakurren poema eta beste hezur batzuk* (aurkezpena)
- 12:00 Josu Unzueta eta Iraia Okina (zuzenekoak)
- 12:30 *Ahotsak* (Unai Elorriaga eta Irati Jimenezen artikuluen bilduma, aurkezpen-solasaldia)
- 13:00 Ataramiñe 2011, (aurkezpena)
- 13:30 Basaki, *Egunero hasten da* (zuzenekoak)
- 14:00 Jeremias Erro (aurkezpena)

- 14:30 Bertan Bera (zuzenekoak)
- 15:00 Tere Irastortza eta Jose Angel Irigaray (Karmele Igartuaren izenean), *Itxaso kontra bat* eta *Orain badakit* (aurkezpen-solasaldia)
- 15:30 Anai arrebak (zuzenekoak)
- 16:00 Goizalde Landabaso, *Branskit* (aurkezpen-solasaldia)
- 16:30 Aingeru Gorrotxategi (zuzenekoak)
- 17:00 Asel Luzarraga (aurkezpena)
- 17:30 Eratu (zuzenekoak)
- 18:00 Matxura (aurkezpen-solasaldia)
- 18:30 Hutsa (zuzenekoak)
- 19:00 Lutxo Egia *Txakur ingelesak* (aurkezpen-solasaldia)
- 19:30 Hesian, *Hitzetik* (zuzenekoak)

ABENDUAK 7

- 10:30 Joxeanjel Arbelaitz eta Joxan Goikoetxea, *Xabier Lete zuzenean, azken kontzertua* (aurkezpena)
- 11:00 Andoni Ercilla Group (zuzenekoak)
- 11:30 Juan Gorostidi (aurkezpena)
- 12:00 Miriam Luki eta Concetta Probanza (zuzenekoak)
- 12:30 Ana Urkiza (aurkezpena)
- 13:00 Eneko Barberena, *Martin Larralde* (aurkezpena)
- 13:30 Antton (zuzenekoak)
- 14:00 Xabier Suobelet (aurkezpena)
- 14:30 Lisabo (aurkezpena)
- 15:00 Antonio Casado da Rocha eta Fito Rodriguez (aurkezpena)
- 15:30 Jupiter Jon, *Pleistozenoko astelehenak* (zuzenekoak)
- 16:00 Fito Rodriguez, *EGAN irakorzaletasunaz* (aurkezpena)
- 16:30 Rafa Rueda, *Enaren geometria* (zuzenekoak)
- 17:00 Berri Txarrak, *Haria* (aurkezpena)
- 17:30 Rapherria (zuzenekoak)
- 18:00 Harkaitz Cano, *Twist* (aurkezpen-solasaldia)
- 18:30 Su ta Gar (zuzenekoak)
- 19:00 Mikel Markez, *Hiri hartan izan zen* (aurkezpena)
- 19:30 Nevermind People (zuzenekoak)

ABENDUAK 8

- 10:30 *Mumia Abu Jamalen aldeko irakurtaldia* (aurkezpena)
- 11:00 Inconexia (zuzenekoak)
- 11:30 Mitxelko Uranga, *Utriesque Vasconiae* (aurkezpena)
- 12:00 Estankona (zuzenekoak)
- 12:30 Xipri Alberbide (aurkezpena)
- 13:00 Trukean-Literatura Eskola (solasaldia)
- 13:30 Itziarren Semeak (zuzenekoak)
- 14:00 Eñaut Etxamendi (aurkezpena)
- 14:30 Igela liburuak (aurkezpena)
- 15:00 Josu Jimenez Maia (aurkezpen-solasaldia)
- 15:30 Old Heathenish (zuzenekoak)
- 16:00 Inoren Ero Ni, *Fregoli* (aurkezpena)
- 16:30 *Txoribigun* (zuzenekoak)
- 17:00 *Telezailak* (aurkezpena)
- 17:30 Xabier Montoia, *Xabier Montoiaren mundu miragarria* (zuzenekoak)
- 18:00 *Biladi Hadi: Hamaika begirada Palestinari Euskal Herritik* liburu (aurkezpen-solasaldia)
- 18:30 Topeka (zuzenekoak)
- 19:00 *Zamorako apaiz presondegia* (aurkezpena)
- 19:30 Klak!son (zuzenekoak)

Egin zaitez bazkide

Durangaldea **BIZI** nahi duzulako
Durangalde **BIZIA** amesten duzulako



Esperientzia diferenteak bizi ahal izango dituzu
Eskualdea gertuago eta sakonago ezagutuko duzu
Ekimen berrietan lagundu ahal izango duzu



Etorri Gerediagara
Dakizunetik lagundu eiguazu

www.gerediaga.com

Hurrengo txartela zure datuekin bete eta Gerediaga Elkartek Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan izango duen gunera eraman.

**Azokako nobedadeen
otzara bat eta Kurutziaga
Hotelean 4 lagunentzat
afaria eskuratzeko aukera
izango duzu.**



IZENA

HELBIDEA

HERRIA

TEL.

E-MAIL

Baimena ematen diot Gerediaga Elkarteari 15/1999 L.O.k eta 34/2002 Legeak xedatutakoari jarraituz informazioa nire posta elektronikora bidaltzeko

**46
DURANGOKO**
Euskal Liburu
eta Disko
Azoka

2011ko abenduaren 2tik 6ra



ZATOZ AZOKARA, ZATOZ GEREDIAGARA

“Adin guztiei begira, askotariko aisialdia eskaintzen hasi gara”

Nerea Lasuen eta Gorane Gillen adin tarte zabalarentzako askotariko ekitaldiak prestatzen hasi dira Xirimiri tabernan; musika, antzerkia, dastaketak, zine kluba... Hilero gaztetxoentzako bi-hiru ekimen ere egongo dira



Zeintzuk dira zuen ohiko zerbitzuak?

Jatekoari dagokionez, eguneko menuak ematen ditugu bazkarian, eta kartara afaritan. Nobedade moduan, asteburuetan menu bereziak ematen hasiko gara. Horrez gainera, kafetegia eta terraza zerbitzuak ditugu. Baita ardandegia eta garagardo zerbitzuak ere.

Aisialdirako ekitaldiak eskaintzen hasi zarete.

Bai, adin tarte guztiei begira, aisialdirako ekitaldi bariatua eskaintzen hasi gara. Kontzertuak, antzerkia, pintxo zein ardo dastaketak, gaztetxoentzako ekimenak... hilero-hilero askotariko ekitaldiak prestatuko ditugu ahalik publiko zabalenaren gustuak bete guran. Barikuetan eta domeketan izango dira.



Hilero-hilero gaztetxoei begirako bi-hiru ekitaldi ere eskainiko ditugu



Musikari dagokionez, zer proposamenekin gozatu ahalko dugu abenduan?

Abenduaren 2an, Los Galerna taldeko Yago eta Dirty Akustik Brothers taldeko Zala arrasatearrak country kontzertua eskainiko dute. Hau guztia Waldhouse jaialdiaz lotuta dago.

Abenduaren 2an izango da Waldhouse jaialdia ere?

Bai, 19:00etatik aurrera. Alemaniako saltxitza pintxo eta garagardoa hiru euroren truke eskainiko ditugu. Ondoren hasiko da kontzertua, 19:30 inguruan. Musikari dagokionez, ez da hileko eskaintza bakarra izango. Abenduaren 11n Napoka Iria taldearen doinu lasai, entzungarri eta melodikoak entzun ahalko ditugu. Noizik noizera DJ bat ere ekarriko dugu, musika pintxatzeko. Esan behar dugu, normalean musika lasaia izango dela protagonista; ez du eroso jesarritza daudenen solasaldirik etengo, atzetik beti martxan dabilen soinu banda baten antzekoa izango da. Gura duena DJari edo taldeari adi ere egon daiteke, jakina, kalitatezko musikariak etorriko direlako.

Abenduaren 18rako pintxo dastaketa prestatu duzue.

Jan-edanen dastaketa ere sarritan eskaintzea da asmoa. Abadiño mailan pintxo lehiaketa bat egin gura genuen lehenengoz, baina taberna gutxi agertu ziren prest. 2012an berriro saiatuko gara. Bitartean, abenduan pintxo-en kata egingo dugu. Betiko pintxoak eta zapore berriak, bietarik dastatu ahalko da.



Udan terraza aprobetxatuko dugu jaialdi txikiak antolatzeke



Landuko duzuen beste esparru bat antzerkigintza da.

Eguena antzerkiaren, zine klubaren edo ipuin kontalarien eguna izango da. Zine kluba beti gai baten inguruan garatuko dugu; hasteko Tim Burton zuzendaria aukeratu dugu. Saio bi egongo dira; lehenengo gaztetxoentzako eta ondoren nagusiendako. Dena dela, ekimena ipuin kontalari bategaz hasi dugu asteon, Txomin Magdalezagaz. Txandatzen joango gara.

Gaztetxoei begirako egitaraua ere antolatuko duzue.

Bai, esaterako, hilaren 23an Karrika antzerki taldeak eskainiko duen *Kontutruk* lana gaztetxoei zuzenduta dago. Hilean bi-hiru ikuskizun antolatuko ditugu eurei begira. Euskal Liburu eta Disko Azokak irauten duen egunetan, beste zerbitzu bat ere eskainiko dugu; Xirimiriko gaztetxoentzako gelan begirale bi egongo dira 16:00etatik aurrera, eta tailerrak, jokoak eta abar egingo dituzte. Oraindik eguna zehaztuta ez badugu ere, aurretik asteazken egun batean



begiraleak ekarriko ditugu umeen aisialdirako.

Ekimen guztiak barruan izango dira?

Udan terraza aprobetxatuko dugu jaialdi batzuk antolatzeke, bertan karpa bat atonduta. Edariak lotutakoak izango dira; demagun, 'Mojito' jaia. Goiz hasi eta goiz amaituko dira bizilagunak errespetatzeko. Gaztetxoentzako ekitaldiak ere egongo dira.

Eskaintza zer hizkuntzatan izango da?

Ahalik eta gehien euskaraz antolatzen saiatuko gara, geure hizkuntza bultzatu gura dugulako. Ekitaldi batzuk, musikari lotutakoak, esaterako, gaztekeraz eta ingelesez ere izango dira.

Gora Gora taberna ere baduzue Durangon.

Otsailean handitu egingo dugu taberna, eta ordutik aurrera, hemengo antzera, aisialdiko ekimenak prestatzen hasiko gara han ere. Janari eta edarien kata asko egingo ditugu, eta musika eta monologoak ere bai.

KONTAKTUA

Webgunea (laster sarean):
www.xirimirijaketxea.com
Tel: 94 621 60 38
Facebook: xirimiri
E-mail:
xirimiri.xirimiri@hotmail.com

xirimiri
kafetegi-jaketxea

andra mari 3baxua muntzaratz (Abadiño) - 94 621 60 38

DURANGOKO AZOKA EGUNETAN:

-menu berezia (20euro)

- ludoteka zerbitzua (16:00etatik aurrera)

Bizimodua errazteko

iROBOT ETXE ASPIRAGAILUA ROOMBA

ROOMBA-531 - 370 euro (bez barne)
ROOMBA 534 PET - 450 euro



Salmenta eta zerbitzu teknikoa



iMOW BELAR MOZTAILEA

MI 322 C (400m2) - 1.520 euro (bez barne)
MI 555 C (2000m2) - 2.230 euro



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

juanberistain@telefonica.net

Oidor Berriozabalbeitia, 14
(Estazio zaharra)

48230 Elorrio

Telefona-Faxa: 94 623 18 03

“Nazioartean ere lan egin dugu, eta esperientzia hori aberasgarria izan da”



Eva Gorostola eta Uritz Aldayk hainbat urteko esperientzia dute albaitaritzan, eta nazioartean ere ibili dira trebatzen. Orain Gure Kide albaitaritzak klinika dute Traña-Matienan

Zer zerbitzu eskaintzen duzue?

Gaixorik dagoen edo atentzia behar duen maskotaren diagnostikarako zein osteko errekupeazio prozesurako zerbitzu integrala eskaintzen dugu. Ekografiak eta erradiografiak bertan egin ditzakegu, eta laborategia ere badugu. Beraz, klinika batean aurkitu daitekeen dena dugu. Esaterako, bezeroak ez du erradiografiak egiten etengabe hara eta hona ibili beharrik.



Tratu pertsonalizatua eskaintzen dugu, bezeroaren beharren arabera moldatuz



Txakurrentzako eta katuentzako zerbitzua eskaintzen duzue?

Txakurrentzako, katuentzako eta etxeko maskotentzako. Orain, esaterako, geroago eta hudo eta untxi gehiago ikusten dira.

Zelako tratua izaten duzue bezeroekin?

Tratua pertsonalizatua da. Bezeroen eta animaliaren beharrietara moldatzen gara.

Gainera, euskara ondo menderatzen duzue...

Euskaldunak gara, eta zerbitzua euskaraz ere eman dezakegu, berdin-berdin. Inguruko klinika gehienek gaztelaz bakarrik eskaintzen dute zerbitzua, eta gure helburua hori ere bazen;

zerbitzu ahalik eta osoena euskaraz ere ematea.

Maskotak geroago eta gehiago zaintzen dira?

Bai. Orain bost-sei urtetik hona alde handia somatu dugu. Lehen txakurrak erresonantzia bat behar zuela-eta, hamarretik bat joaten zen Madrilera. Orain hamarretik zazpi-zortzi joango dira.

Ikusten dudanez, zuek ere baduzue klinikan maskota bat.

Timba deitzen da eta Golden Retrieverra da. Marketing aldetik deskubrimendua izan da (barreak). Zergatik? Ate kanpoan ipintzen da, eta espaloitik pasatzen diren txakur denen atentzia deitzen du. Soldatua eman beharko diogu!

Gazteak baina esperientzia handikoak ei zarete. Zu, Eva, non ibili zara beharrean?

Beka bat aprobetxatuz, Uruguayra joan eta zirugian espezializazioa egin nuen. Hain esperientzia aberasgarria izan zenez, berriro bueltatu nintzen, lanera, urtebeterako. Ondoren, hilabetez Italiara joan nintzen, eta beste urtebete Miamin (Florida) eman nuen lanean.

Eta zu, Uritz?

Ikasketak amaitzean Bartzelonara joan nintzen lanera, eta ondoren beka baten bitartez Grezian eman nituen hile batzuk. Handik bueltan, besteak beste, Gortizko basa-animalien erreabilitazio zentroan egon nintzen. Ondoren, biok, barne medikuntzako masterra egin genuen.

Alde guztietako jakintza pila-tu duzue.

Hori oso garrantzitsua da. Eus-



DATUAK

ZERBITZUAK

Larrialdiko ospitalizazioa, analisi klinikoak, mikrobiologia, erradiologia, kardiologia, ebakuntza, ekografia...

Ordutegia:

Astelehena, eguaztena eta ostirala: 10:00-13:30 / 17:00-20:00

Martitzena eta eguena: 09:00-18:00

Zapatua: 10:30-13:30

KONTAKTUAK

Tel: 94 620 16 21

Urgentzia: 655 881 422

E-maila:

cvgurekide@gmail.com

Webgunea: gurekide.es

Facebook:

facebook.com/GureKide

kal Herrian ez ezik, Estatu mailan zein nazioartean zelan lan egiten den ikusitakoak gara. Horrek balio gehigarria dauka. Esperientzia horrek asko laguntzen du eguneroko jardunean.

Liburu eta disko azokara joateko ohiturarik baduzue?

Bai. Osteratxoa beti egiten dugu, eta interesatzen zaigun diskoren eta libururen bat aurkituz gero, erosi egiten dugu. Erregalaren bat egiteko ere hainbat aukera eskaintzen du Azokak.

Albaitaritzari buruz liburu asko dago euskaraz?

Ez, gehienak gaztelazkoak eta ingelesezkoak dira. Terminologiaren aldetik ere badago hutsunea. Berba teknikoak erdaratik, ingelesez edo latinetik datoz, eta hizkuntza horiek erabiltzen dira. Euskaraz ere berba batzuk gauza bera adierazteko erabiltzen dira. 'Pulga' berba, esaterako; euskaraz ardia, zorria, arkakusoa... hamaika ordezeko ditu!

Kokapen erosoak: autoa ateraino eroateko aukera

Traña-Matienatik Durangorako norabidean, erreka ondorengo biribilgunearen ezkerreko dago Gure Kide. Herrigunetik kanpora egoteak apartatzeko erosotasuna ematen du; jabeak txakur asko baditu eta urgentziarik badu ate aurrera eraman dezake autoa. Edonondik etorrita ere zentruan dago.



Esperientzia handia eta zerbitzu integrala euskaraz

Klinika batek behar duen material eta teknologia guztia du Gure Kidek. Erradiografiak bertan egin daitezke, inora joan beharrik barik. Gainera, gura duenak zerbitzua euskaraz jaso dezake, albaitari esperientziatu biren eskutik: Uruguain, Miamin, Grezian, Bartzelonan... egon dira lanean eta, besteak beste, medikuntzako Masterra dute.

Hilero deskontuak eta ordutegi jarraia astean birritan

Hilero deskontuak egiten dituzte. Abenduan aho garbiketarako %25eko deskontua du txakurrentzat eta katuentzat, eta txakurren barne desparasitazioak %50ekoa. Astean birritan, martitzen eta eguenean ordutegi jarraia ere badute: 09:00etatik 18:00etara; zapatuetan, 10:30-13:30. Urgentziako zenbakia 24 orduetan erabili daiteke.



Eguerdiz eta gauez ekitaldi sorta eskainiko dute plateruek Azokako egun guztietan

Hainbat musika talderen bisitaz gainera, 'Gartxot' filmaren aurkezpen berezia eta Gaztezulo Jaia izango dira kafe antzokian. Azken egunean, Galizia eta Euskal Herriko musika uztartuko dute 'Akrobatak' emanaldian



Gauetan kontzertuak, eta eguerdi aldean, berriaz, hainbat ikuskizun antolatutako Plateruena kafe antzokian, urtero legez.

Governors eta Eratu musika taldeak izango dira Platerueneko oholza zapaltzen lehenengoak. Bi talde horiek euren diskoak aurkeztera datoz Durangora, eta Azoka zabaldu aurreko gauean eskainiko dute kontzertua.

Abenduaren 3an, 22:00etan hasiko dute emanaldia.

Gartxot Eguna

Abenduaren 4an, *Gartxot* filma aurkezteko ekitaldi berezi bi egongo dira Plateruenean. 13:00etan filmaren aurkezpen antzertua egingo dute, eta gaueko Kerobia talde nafarrak emanaldi berezia prestatu du, formatu akustikoa eta elektrikoa tartekatuz. Tal-

Igandean Gartxot filma aurkezteko kontzertu berezia prestatu du Kerobiak

deak bere blogean adierazi duenez, kontzertua "ohikoa baino beroagoa" izatea espero dute.

Astelehen eguerdian, 13:00etan, bikote hartu-emanak ardatz dituen Gorpitz dantza ikuskizuna eskainiko dute, eta gauean Ze Esatek! taldeak reggae eta ska kontzertua eskainiko du 22:30ean.

Abenduaren 6an, martitzenean, 13:00etan, Ganbara musi-

ka ikuskizunagaz folk doinuak sartuko dira kafe antzokira, eta gauean trikitia, reggae eta musika dantzagarria uztartzen dituen Esne Beltzaren txanda izango da, 22:30etik aurrera.

Eguaztenean, abenduaren 7an, Gaztezulo aldizkariak bere bideo lehiaketaren sari banaketa festa izango du Plateruenean, 21:30ean hasita. Ander Lipus aktoreak aurkeztu eta girotuko du sari banaketa, eta ondoren Lisabö eta Jupiter Jon taldeek kontzertua eskainiko dute.

Governors, Eratu eta Etxe eta Esne Beltza disko berriekin datoz

Gaztezulok antolatutako jaian Lisabö eta Jupiter Jon-ek joko dute

Amaiera jaia

Azokaren azken egunean, hilaren 8an, 18:00etan hasiko dira musika emanaldiak.

Hasteko, Iñaki Etxezarraga "Etxe"-k bere azken diskoa aurkeztuko du. Horren ondoren, eta Azokari amaiera emateko, *Akrobatak* izeneko emanaldia eskainiko dute Galiziako eta Euskal Herriko hainbat musikariek. Ugia Pedreirak, Fred Martinsek eta Mikel Urdangarinek sortutako proiektua da *Akrobatak*, eta herri musiken arteko mestizajea da bere oinarria.



GURE BIDE GALDUAK

Dejabu Antzerki Laborategia



Abenduak 7 • 20:00

San Agustin
KULTUR
GUNEA

DURANGOKO UDALA



PLATERUENA

Durangoko
Kafe Antzokia

EGITARAUA

Abenduak 3

22:30 Governors eta Eratu taldeen kontzertuak.

Abenduak 4

13:00 Gartxot filmaren aurkezpen antzertua.
22:30 Kerobia taldearen emanaldi berezia.

Abenduak 5

13:00 Gorpitz dantza ikuskizuna
22:30 Ze Esatek!

Abenduak 6

13:00 Ganbara musika ikuskizuna
22:30 Esne Beltza

Abenduak 7

21:30 Gaztezulo festa: Lisabö eta Jupiter Jon

Abenduak 8

13:00 Joseba Jakaren omenezko X. Herri-lasterketa. Sari banaketa
18:00 Etxe eta Akrobatak

%100 arte finantzatutako erosketa:

SabadellGuipuzcoano



Laster Errotaritxuenan bizi ahal izango duzu

Lanak martxan daude



Erakitzeko garen proiektuak, informazio hori adierazten duen irudiak erakusten dituzte. Irudiak 21eko 515/83 ED an eskatzen diren eta publizitate honen bidez argitaratzen diren informazio guztiak, nire esanetan esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

FINANTZIAZIO BALDINTZA APARTAK

2 logelako etxebizitza
194.000€ -tik aurrera
(+ BEZ)

www.sukia.com
www.solvía.es

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

Durangaldeko fruitu musikala heldutasunera ailegatuta

Musika nobedadeen artean indartsu sartu dira Antton, Etxe eta Xarmaren disko berriak. Hirurek euren jauzi musikal propioa dakarte Azokara, egitasmoak birdefinituz, sendotuz eta zehaztuz. Egunotan zuzenean ikusi eta entzun ahal izango ditugu, gainera.



Hitz handiz esan baino, berba txikiz egiak oihukatuz dator Antton

Abesten duten lemetako bat da goikoa. Izena lehenagotik ezaguna egingo zaigun arren, proiektu berria da Antton. Abeslari elorriarrari lau lagun batu zaizkio, talde legez ibilbide berrirako: Lor taldeko Lander Irazola (gitarra, ahotsa) eta Ramiro Unzeta (bateria), Malo taldeko Txaber San Pedro (baxua) eta besteak beste Edanen ibilitako Mikel Nuñez (teklatura).

Taldekieek diote era naturalean sortu dela egitasmoa. Antton eta Landerrek aspalditik ziharduten elkarlanean; Ramiro eta Txaber ere ez dira urrunekoak; biak elorriarrak. Ideiari bueltak ematen hastean, Mikeli gonbita egitea pentsatu eta hortik aurrera zabaldu zen istorioaren atea.

Boskote honen lehen emaitza da *Gorantz erori*. "Batetik, izenburuaren esanahi literalari begiratuta, gorantz erortzea zutunik jaustea moduan ulertzen dugu:

zortea edukitzea irudikatzen du. Konziente gara, hau dena zelan sortu den ikusita, zortedun garela. Bestetik gauzak ulertzeko modu bat ere iruditzen zaigu: jausi eta berriro altxatuta ikasten dela bizitzan gehien", diote. Ondarroako Santos Records estudioan grabatu dute lana, eta *Ohe hutsegiak* kantan Aiora Renteriaren (Zea Mays) ekarpena jaso dute. Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Endika Zarra-beitiaren berbak musikatu dituzte.

GORANTZ ERORI

Egilea: Antton
Ekoiztetxea:
Baga-Biga musika
ideiak



Etxe: haize berriak zabalduz, formatu akustikoan

Inflexio puntua da disko berria Etxeren ibilbidean. Gaztetatik talde ugaritan ibilitakoa da Iñaki Etxezarraga, eta bakarlari legez ere baditu bilduma bi plazaratuta. Bere bizitzan garrantzia handiko pasartea izan da ETBko *El conquistador del fin del mundo* telesaioa, eta hor ere badu oinarria sormen lan berriak. Programa horretarako *Munduaren amaiera konkistatzen* abestia ondu zuen, eta hori izango da diskoaren atariko doinua. Udan Trikitio taldeagaz jotzen zebilela, hainbatek eskatu ei zioten kanta hori abesteko, eta emanaldi "intimoagoekin" probatzea pentsatu zuen.

Guztira hamar piezak osatzen dute *Haize berri bat*. Horietatik sei berrikuntzak dira, eta gainerakoak aurreko diskoetako zenbait abestiren moldaketak. Berrizkoak taldea baztertu eta bere gitarrarekin bakarrik ondu ditu diskoko hamar kantak. Etxe-

ren ahots eta gitarraz gainera, Iban Gurrutxagaren country-rock kutsuko gitarra-konponketak ere entzun daitezke. Edoze-lan ere, diskoan Berrizko musikariaren ahotsa da protagonista nagusia.

Diskoa Ondarroan grabatu du Jon Olabarriaga teknikariaren laguntzagaz, 2011ko urrian. Zuzenekoetan murgilduta dabil, eta kanpora joateko aukera ere edukitu du; Pontevedra, Ourense eta Segoviara, besteak beste.

HAIZE BERRI BAT

Egilea: Etxe
Ekoiztetxea:
Baga-Biga musika
ideiak



Nortasun zehatzagoz dator Xarma bere bigarren albumean



Debagoieneko Danbaka musika lehiaketa irabazita eskuratutako aukera da *Karenka*, Xarma taldearen bigarren lana. Laukote legez baina bateria-jotzaile berriagaz datoz bueltan. Aurretik, besteak beste, Keike taldean aritutakoa den Denis Alberdi berriztarra sartu da, orain arte taldean jardun duen Froufe berriztarraren ordez. Itsaso Gutierrez eta Jon Kirru Iparragirre ondarrutarrak eta Christian Martin berriztarra dira gainerako taldekideak. Uztaileko azkeneko asteetan batu zen Denis, baina Frou-

fek grabatu zuen bateria. Grabaketa bi astetan egin zuten, abuztu amaieran, Arrasateko Shot estudioan. Lehenengo diskoagaz alderatuta, honetan taldearen eta kanten nortasuna zehaztuagoa dela azpimarratu dute taldekideek.

Danbaka maketa lehiaketa irabazi zutenetik sorturiko dozena bat kanta bildu dituzte disko honetan. Doinu gogorrak eta azkarrak osatu dituzte, eta letrei dagokienez gai sozialak eta politikoak uztartzen dituzte. Guztira, ñabardura askoko 12 abesti aurkituko ditugu *Karenka* lanean, rocka oinarri dutela eta kideen aurreko esperientzien eraginez zipiritinduta.

Gainera, aipatzekoa da taldeak aurtengo Ikasle Eguneko kanta egin duela. Intxorta 1937 Kultur Elkarteak Azokan aterako duen kanta bildumarako *ixiltasun hautsia* izeneko kanta ere sortu du. Abenduan sei kontzertu eskainiko dituzte.

KARENKA

Egilea: Xarma
Ekoiztetxea:
DDT Diskak



EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto
komunikabideak



Harpidedun berrien artean asteburuetako egonaldiak zotz egingo ditugu.

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946816558
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

AKUILUAN

“Azokan bizitako anekdotekin liburua kaleratu beharko genuke”

Gogoeta eta aldaketa uneak bizi dituzte Gerediaga elkarteak, XXI. mendeko Azokaren etorkizuneko izaera eta ezaugarriak zehazteko

Azkeneko bider izango da Durangoko Azokako zuzendari Jon Irazabal iurretarra. Hala ere, ez doa etxera; aurrerantzean ere beste lan batzuetan ibiliko dela adierazi digu. Ateak zabaltzeko ordu gutxi falta diren egun hauetan, lanez gainezka dabilta Gerediagako kideak, baina tarte bat egin eta bulego-
ra gonbidatu gaitu Irazabalek. Aurrera eta atzera begiratze-
ko aprobetxatu dugu.

Nondik dator zuzendaritza uzteko erabakia?

Hainbeste urteren ondoren, belaunaldi-erleboia behar zela ikusten genuen. Gainera, gaur egun Azokak beste osagarri, maila eta arlo batzuk ere batzen ditu, eta uste genuen interesgarria zela beste pertsona bat sartzea. Bestalde, zuzendaritza konpartitu bat beharrezko ikusten genuen, orain arte zuzendari bakarra egon da-eta. Aitziber Ato-
rrasagastik arlo ekonomikoan jarraituko du, nik segurutik arlo teknikoan, eta Aiert Goenaga zuzendari orokorra izango da.

Gogoetan murgilduta zabil- tate Gerediagan.

Azoka birdefinitu behar da. Estrategiaren inguruko ikerketa eta hausnarketan gabilta. Azokaren etorkizuneko zutabeak jar-
tzea dugu helburu. Langileak, bisitariak, muntaketa alorreko-
ak, kultura ordezkariak... hain-
bat agenteren ekarpena jaso

dugu, oinarritzeko dokumentu bat egin eta eztabaidagaz jarraitze-
ko asmoz.

Durango euskal kulturaren hiriburu bihurtu gura ei duzue.

Azoka fenomeno kultural oso garrantzitsua da Euskal Herri osoan. Diskoetxe eta argite-
leentzako zer esanik ez, eta ez handien kasuan bakarrik. Bes-
talde, Liburu eta Disko Azoka izaten jarraitu behar du ala Kul-
tura Azoka izan beharko da? Hainbat gauza dago zehazteko. Teknologia berriez ere asko ber-
ba egiten da, baina ez dakit mer-
katua zer punturaino dagoen horretan; orain dela 16 urte zabaldu genuen espazio hori 12 standekin, eta gaur egun bakar bat gehiago dago soilik.

Noiztik zabilta Azokaren antolaketa lanetan?

1980an hasi nintzen, hilabete-
rako hartu nindutenean. Izan ere, orduan Azoka laupabost lagunen artean antolatzen zen. Antton Mari Aldekoa-Otalora, Sabin Goikolea, Lazaro Milikua, Jose Luis Lete eta Jesus Mari Salterain zebiltzan. Ni Geredi-
gan, artxibaketan nenbilen bolon-
dres. Lazaro zen Azokako ardu-
raduna, eta bere lanorduetan egi-
ten zituen beharrak; eraman ezinekoa bihurtu zen. Horrega-
tik liberatu ninduten.

Azoka antolatzeak zer eman dizu pertsonalki?

Bai Azokak bai Gerediagak, nor-
bere gustuko beharrean ibiltzea. Eta ez da gutxi. Gaur egun asko erabiltzen ohi da norbere burua garatzeko aukera izatea garran-
tzitsua dela esatea; ez dakit horrek diren berbak, baina Azo-
katik jaso dudana horrelako zer edo zer dela esango nuke.

Eta zer kendu dizu?

Ordu asko. Txiste lege ezan-
go dizut, Gerediagan 35 ordu-
ko lan astea dugula, baina ordaintzen direnak direla 35. Sartu beharreko ordu guztiak sartzen ditugu, beste hainbat beharretan moduan.

Urte hauetan guztietan, kon- tatzeko esperientzia ugari izango duzu.

Azokako anekdotekin liburua kaleratu beharko genuke. Behin, Azoka merkatuan egiten zenean, bertara joan eta sarrerako mas-
tetan hiru bandera espai-
niar zeuden ipinita. Ban-
deren gerran geunden bete-
betean sasoi har-
tan! Kaka praktetan egin genuen guztiok; Azoka zabaltzeko ordu erdi falta zen. Bandera kentzea deli-
tua zen, eta nork ken-
du? Udalekoek briga-
dako enkargatuari dei-
tu zioten, eta hark zioen banderak jartze-
ko agindua jaso zue-
la, eta beretzako ban-
dera bakarra zegoe-
la. K e n t z e a n , basura-poltsa bate-
an sartu genituen, inor ez konturatzeko moduan. Briga-
dakoak eroan zituen.

Zer sentitzen duzu Azokako atea zabaltze- an?

Zabaltzean lasai-
tasuna, eginda-
koa eginda dagoelako. Azterketa egitera joatea lakoa da. Poza ere bai, jende piloa

datorrelako norbe-
rak egindako behar bat ikustera.

Eta atea ixtean?
Hurrengo urtera arteko deskan-
tsua.



Jon Irazabal •

Durangoko Azokaren zuzendaria, azkeneko

LOGELA 1 (165.000 €) 2 LOGELA (197.000 €) 3 LOGELA (260.000 €)

**Eraikuntzaren 1. fasea hasita
FAUSTEGOIENAN (DURANGO)**

**1 LOG
62 M²**

**2 LOG
90 M²**

**3 LOG
109 M²**

**23 ETXEBIZITZA
GUNE ZABALEKIN**

Domotika • Interneterako doako konexioa
Horma-armairuak • Ganbara
GARAJEA AUKERAN

**ERAIKUNTZA
ETA GESTIOA**

ARGOLABE, S.A.



Joxemiel Barandiaran, 8 A, 1ºC - DURANGO
Tel.: 94 681 44 95 • Mug.: 650 397 007
e-mail: argolabe@hotmail.com

Kontratuzko balioak aurrekoak baino gehiago izan daitezke.